

uk

76. zenbakia / 2005 martxoak 6



14. korrika

Euskal Herria euskalduntzen

badator

ni ere bai!

MARTXOAREN 10etik 20ra

ORREAGA-BILBO 2005

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Heavyak Sopelanan. Carlos Terreros.
6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Erreferenduma, Gorka Orueta.
7. LEHEN ETA ORAIN. Plentziako itsasadarra, 1890-2005.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
9. ERRETRATUA. Begoña Perez, Gorizko ospitaleko zuzendaria. A. M.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopelana 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Elurra gurean, Asier Menthaka.
26. ERREPORTAJEA. Badator Korrika 14, Unai Brea.
28. ARGAZKIA. Aixerrota misteriotsua, Juan Gomez.
30. BERBETAN. Aitor Zabalgoeaskoa, U. B.
34. FOTOGRAFIA. Gorizko ospitalea, 1920.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Renoir, pantaila berriak Deustun.
43. MUSIKA. UKoilkada taldea. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Lur entziklopedia.Liburuen erreseinak.
45. KIROLA. David Perez, munduko bodyboard txapeldun sopoloztarra.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Igor Elordui. Unai Brea.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan? Adibidez, Sopelako Marina Surf tabernan.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK.
54. AITORMENAK. Mirentxu Purroy. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Gorizko ospitaleko moja, 1920 (Euskal Museoko artxiboa)



Berbetan

Algortarra. MSF Mugarik Gabeko Medikuen erakundean egiten du lan logistika arloan. Gerrak, hondamendi naturalak non... bera han.

Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak / ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza.....**martxoak 14**
 Redentor elizako parkinean.....**maiatzak 17**
 Algortako anbulatorioa.....**maiatzak 16**
 Areetako anbulatorioa.....**maiatzak 10**
 Erromoko kultur etxea.....**apirilak 21**

Informazioa: 900 720 389

Zatoz odola ematera, ez itxaron!



ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Amaia Arriaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentsaka
TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Bittor Egurrea, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Esti Eskerra, Oskar Fernández, Josu Etxeola, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiazea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteentopaguneko partaide da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskaraz Elkartearen dirulaguntza jasotzen du



txasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala



Aldizkari honek Berango Udalaren dirulaguntza jaso du




Erandio Udalak



Aldizkari honek Erandio Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



Fundación Grupo Euzkai



Aldizkari honek Euzko Jaurizteraren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du



aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

gugeu

UK lagundu

Urtero legez atzera gatozkizue, irakurleak, laguntza eske. *“Berriro ere diru eskean datoz hauek”*, pentsatuko du zuetarikoa batek baino gehiagok, eta ez da oker ibiliko. Izan ere, zoriotzarrez edo zorionez dirua nahitaezkoa da proiektuak gauzatzeko, kasu honetan, aldizkari hau egiteko.

Jakin badakizue, ordaindu zein ordaindu ez, UK harpidetza egiten duzuen guzti-guztiori etxera bialtzen zaizuela, gure helburua eta nahia euskara bazter guzti-guztietara zabaltzea da-eta. Eta horretan ahalegintzen gara. Zorionez, asko zarete aldizkari hau diruz laguntzen duzuenak. Zeuoi, bihotzez, gure esker ona! Zuen diru-laguntza barik nekez egin ahal izango genuke UK.

Idazki hau, ostera, gainontzeko irakurleei zuzenduta dago, hau da, diruz laguntzen ez gaituzuenoi. Ez dugu asko eskatzen: urtean 20 UK egiten ditugu, eta 20 euroko laguntza eskatzen dizuegu. Ez da asko UK etxean hamabostean behin jasotzeagatik, ezta? Lagundu nahi bagaituzue gure bulegora (94 491 13 37) deitzea besterik ez duzue egin behar, edota ale honekin batera banatu dugun fitxa bete eta guri helaraztea. Aldez aurretik, eskerrik asko.

Baina UK beste era askotara ere lagundu ahal duzue. Esaterako, zuen lagunak harpidedun eginez, aldizkari honen berri emanez, aldizkarian argitaratzeko argazkiak zein testuak bialduz...


Horrela, denon artean, handiago egingo dugu UK!

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxe: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero erosi > berria



SOPELA, 2004

Heavya osasuntsu / Sopelan ACDC talde heavy gogoangarriaren kitarrajole bikainaren eskultura paratu zuten udal arduradunek. Jakina denez, musikari hori Angus Young da. Hain jakina ez dena eskultura erromesaldi leku bihurtu dela da, oraindik ere heavyaren erlijioan sinisten duten lagunentzat behintzat. Argazkian Bilbotik espreski euren heroiarekin argazkia egitera etorritako heavyzaleak dauzkazue. / Argazkia: **Carlos Terreros**

Leihatila

> Maddi Albizu

Europako konstituzioa

*Sinestarazi herriari berak gobermatzen duela eta gobermatzen utziko dizu zioen William Penn Pennsylvaniako Koloniaren fundatzaileak (1644-1718). Azken egunotan jo eta su aritu zaizkigu Europako Konstituzioaren aldeko eta aurkako mezuak helarazten. Itxura denez, gure etorkizuna eta, are larriagoa dena, gure seme-alabena, jokoan dago. Hil ala biziko erabakia hartu beharrean geunden: konstituzioari bai ala ez. Politikari profesionalak Konstituzioaz dioskuenenean oinarritu nahi badugu gure erabakia jai daukagu. Neronek ikusi eta entzun ahal izan ditut Konstituzioaren paragrafo berari buruzko bi irakurketa erabat kontrajarri. Edabe magiko saltzaile hauek edozer esateko gai dira gure botoa lortzearen. Halakoak dira. Kontu hauetan, berriz, ni Senecaren jarraitzailea naiz: *gobernurik zailena norberaren buruaren gainekoa da*. Horrexek kezkatzen nau ni. 4*

photoshop > pasealeku berria Arrigunagan



Irudiak eta manipulazioa: A. M.

IRITZIA

Gurean Europaren gainean egin berri den erreferendumaren inguruko gogoeta eskatu diogu EHUn irakaslea den Gorka Orueta jaunari.

Erreferendumaren inguruan

Nazioarteko komunikabide gehienek aipatu dute abstentzioa nagusi izan dela aurreko otsailaren 20an egin zen Europako Konstituzioaren inguruko erreferendumean. Emaitzak azaltzen saiatzen direnen artean, entzun ahal izan dugun arrazioen artean, interes faltarena izan da, hau da, urrunegi ikusten dugula hiritarrok Europa batuaren proiektua eta horregatik ez gara inplikatu. Inplikazioaz mintzatzeko ezagueraz berba egin beharko genuke lehenik, hiritarrak duen ezagueraz, alegia. Zentzu honetan, Europako Batzordeak aurreikusi duen 8 milioi euroko aurrekontua batasun osoan egingo den berrespen prozesu osorako, agerian uzten du diru gutxi dela haraindikotasun hitzarmen hau azaltzeko (egia ere bada erreferenduma ez dela estatu guzti-guztietan egingo, baina bai gehienetan). Halako kontsultak egiten direnean Espainiako estatuko legeak aurrekonturik aurreikustea ahalbidetzen ez duenez, gobernuak urtarilean —bozketa eguna baino hilabete lehenago baino ez— moldaketa moduan zortzi mila euro eman

zizkion diputatu bakoitzari erreferendumaren inguruan kanpaina egin zezan. Kontuan hartzen badugu baiezkoaren alde hirurehun diputatu baino gehiago zeudela eta ezezkoaren alde hamazortzi baino ez, kanpaina desorekatua izan da oso.

Bestetik, estatu mailako alderdi politikoek ez dute konstituzioaren azalpenean asko lagundu. Izan ere, erreferendumaren inguruan egin den kanpainan, bi alderdi nagusiak, eta baiezkoaren alde zeuden arren, bata bestearen kontra ibili dira. Eguneroko politikan dabiltzan moduan eta konstituzioaren nondik-norakoak azaldu gabe, horrek hiritarrengan nolabaiteko nekea eragin du.

«Erreferendum egunaren bezperan lapurreta jasan nuen, agiri barik lotu nintzen eta beraz ezin izan nuen botorik eman»

Gainera, ematen du horretaz ohartu ez direla, emaitzen inguruko analisia egiterakoan berdin segitzen dute-eta. Espainiako gobernuan dagoen alderdiak arrakastatsua izan dela dioen bitartean, oposiziokoak berriz, porrotaz eta gobernuaren ahuleziaz mintzatzen dira.

Bada, egoera hau izanik, ezezko botoa emateko gogoz geunden batzuk eta horregatik ere Europaren aurka gaudela entzun behar izan dugu. Uste nuen halako eztabaida manikeoak eta sinplistik iraganeko gauzak zirela (behintzat Europa bezalako gai urrunetan), baina zoritxarrez ez da horrela. Ezetz bozkatzeko arrazoiak ez ditut orain azalduko (zertarako?) baina azkenean ehuneko hirurogeirekin batera abstentziora joan behar izan nintzen derrigorrez. Bizitzan gorabeherak gertatzen dira, erreferendum egunaren bezperan lapurreta jasan nuen, agiri barik lotu nintzen eta beraz

ezin izan nuen botorik eman. 4

Gorka Orueta

(Nazioarteko Harremanetarako irakaslea da EHUn)



EUSKAL MUSEOA, BILBAO



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / PLENTZIA 1890-2005

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

erreferenduma > Europako Itun Konstituzionala

Otsailaren 20an bozkatzera hurreratu ziren uribekostar gehienek baiezkoa eman zioten Europako Itun Konstituzioari. Hala ere, botoa emateko aukera zutenen %38,8k bakarrik bozkatu zuen gure eskualdean, edo bestela esanda, abstentzioa %61,14koa izan zen. Bizkaiko datuei begiratuz gero, bizkaitarren %39,3k hartu zuen parte eta %60,6 abstenu egin zen; bozkatu zutenen %65ek baietza eman zion Europako Konstituzioari eta ezezkoa %30,7k. Hego Euskal Herrian parte-hartzea %39,3koa izan zen, eta euskal herritarrek izan dira bozka hauetan parte-hartzerik txikiena eduki zutenak, 5etik 2k baino ez zuen eman botoa. Horren albotik, ezezko botoen kopururik altuena ere euskal herritarrek eman zuten. Alabaina, bakoitzak gura moduan irakurri ditu emaitzak, zenbakiek egia bat baino gehiago gorde ei dezakete. Zenbat buru, hainbat aburu. ^m

emaitzak herriz herri				
	bai	ez	abs.	errola
Getxo	17.206 (%65,70)	7.823 (%29,87)	40.527 (%60,60)	66.876
Leioa	5.881 (%66,56)	2.569 (%29,08)	14.416 (%61,65)	23.382
Erandio	4.746 (%68,05)	1.967 (%28,20)	12.630 (%64,18)	19.678
Sopelana	1.709 (%50,68)	1.522 (%45,14)	5.705 (%62,69)	9.100
Berango	1.062 (%59,66)	648 (%36,40)	2.974 (%62,32)	4.772
Gorliz	909 (%55,02)	683 (%41,34)	2.251 (%57,56)	3.911
Plentzia	737 (%55,33)	538 (%40,39)	1.871 (%58,30)	3.209
Urduliz	517 (%53,97)	399 (%41,65)	1.655 (%63,10)	2.623
Barrika	228 (%52,05)	197 (%44,98)	653 (%59,63)	1.095
Lemoiz	148 (%49,83)	135 (%45,45)	472 (%61,38)	769

kale izendegia > Valentin Gorbeña



Jose Ysaac Amann eta Enrique Arestigaz batera, Sociedad de Terrenos de Neguri, S.A. izeneko elkartearen sortzaileetako eta bazkideetako bat dugu Valentin Gorbeña Ayarragaray; elkartea horren helburu nagusia (1904an eratu eta handik ia 15 urtera deuseztatu zena), auzo getxoztar hori sortzeko eta urbanizatzeko lursailak erostea eta ondoren saltzea izan zen. Bizkaiko eta Gipuzkoako industria esparruan pertsona ospetsua ere bagenuen Gorbeña; esate baterako, Errenteriko Papelera Española enpresako Administrazio-Kontseiluaren kidea izan zen. Ramon Sota Bilboko Portuko herri-lanen ugazaba zela, Evaristo Churruca ingeniariaren ondorengoa izan zen 1909ko urtarritetik 1915eko ekainera bitartean. Valentin Gorbeñaren kale izenkidea, honezkero zuetako askok asmatuko zenutenez, Negurin dago. ^m

Ezkerrean, Neguriko Valentin Gorbeña kalea



“Gorlizen egiten duguna ez da beste lekuetan egiten, guztiz desberdinak gara”, erantzun zigun Begoña ospitalearen berezitasunaz galdetu genionean

Begoña Perez Huertas > Gorlizko ospitaleko zuzendaria

Euskal Herriko medikuntzako lehenengo promozioan lizentziatu zen Begoña Perez Huerta (Deustu, 1950). Basurton lanean egon ostean, orain dela 30 urte inguru Gorlizera joan zen bizitzera eta behar egitera: *“Denbora pilo bat eman nuen mediku, azken hamar urtez geroztik ospitaleko zuzendaritzan nabil”*. Begoña egoera oso lazarriak bizi izan ditu Gorlizko ospitalean, eta askotan ezintasuna ere sentitu du: *“Gaixoa bakoitzak bere istorioa dauka, jeneralean istorio gogorrak (trambosia, hemiplejia...), baina gazteak buru-bezurreen traumatismo batez eta koman etortzen direnean... Hori enamangaitza da, nik behintzat ezin dezaket irentsi”*. Antzinako itsas-erietxea 1919an ireki zen, eta harrezkeroztik -gaur egun 300 bat behargin eta 145 ohe dauzka ospitaleak- bilakaera handia izan du; izan ere, ospitaleak betidanik eduki du aldatzeko bokazioa: *“Patologiak aldatzen joan diren heinean, ospitalea egoera horietara egokitu da, beti gizartearen beharrik ikusita eta gaixoarene erritmora egokitzeko”*. Horrela, hasierako urteetan umeen tuberkulosiaz, poliomielitiaz eta garun-paralisiar arduratu eta gero, *“orain batez ere helduen errehabilitazioaren eta zainketa aringarrien ardura daukagu”*. ^m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Jon Urresti**

ALBE 25 urte poto egin barik

Algortako Bertsolari Eskolak **zilarrezko ezteiak** ospatzen ditu aurten, **380 ikasle** dabilta eskualdeko hezkuntza zentroetan ematen dituen eskoletan eta **30 bat bertsolari eskolan** bertan

Mende laurdena joan da Andoni Iriondo Barrenetxearen eta Trino Azkoitia Azpitarteren ekimenez Algortan bertso-eskola sortu zenetik. Ordutik, urak egin du bere bidea: bertso-eskolak neurria hartu dio irakasbideari, errima egokia aurkitu du bertsozaletasuna sustatzeko eta doinu alaiean egin du bertso-ibilbidean aurrera.

Algortako bertso-eskola 1980an sortu zen eta bultzatzaileak azkoitiar bat eta mendarotar bat izan ziren: Trino Azkoitia eta Andoni Iriondo. Arrazoi desberdengatik, batak ala besteak Getxo hartu zuten bizileku eta bertsozaletasunak elkartu zituen biak. Hala sortu zen aurten 25 urte betetzen dituen bertso-eskola, baina 1995ean ipini zioten gaur egun daukan izena: Algortako Bertsolari Eskola (ALBE). Horren ondotik, 80. hamakadan ere bertsolaritza haizeberrituko zuten ikuspuntu iraultzaileak plazaratu ziren, batez ere, Xabier Amurizaren eskutik: bertsolaria sortzez bakarrik ez, eskolatuz ere egin zitekeela, bertsoetarako euskara batuaren erabilera... Han eta hemen jaio ziren bertso-eskolak, haien artean Algortakoa. Beraz, Amurizak ere leku berezia dauka ALBEren historian.

Hala ere, eskola sortu baino lehenago ere izan dira Uribe Kostan bertsolariak eta bertsozaleak, eta hori adierazten du ALBEko Joseba Santxo, Josu Landeta eta Fredi Paya egiten dabiltzan eskualdeko bertso-historiaurrearen ikerketak.



Argazkian, azken Ahobi sarien banaketan gaztetxoak kantari

Gaur egun, ALBEn 15 bat bertsolarik dihardute nagusien taldean; gaztetxoen artean, bi taldetan banatuta, 15 bat lagunek. Horrez gain, eskualdeko hezkuntza

«25. urtemuga abenduan ospatuko dute, Ahobien gala ekitaldiaren barruan»

zentroetan ere bertsolaritza-eskolak ematen dituzte ALBEkoek: guztira 380 ikasle dabilta, eta horietatik 300 Getxoko ikasletoletakoak dira.

Urtean ia 30 bertso-ekitaldi

Ia 30 ekitaldi edota bertso-saio antolatzen ditu ALBEk urtean zehar. Gazteek, nagusiek, izen handikoek, jaioberriek, iragane-ko sustraiek, oraingo enborrek, etorkizuneko adaskek... denek daukate lekua

ALBEren jardueretan: Abra saria, Bihotza gazte, Balkoitik balkoira, Bertso-paper hautatuak, Bertso jaialdi mundiala, Jaietan bertsoz, Ahobien gala... Azken ekitaldi horretan, abendu aldera, egingo dute 25. urtebetze ospakizuna. Eurek ikuskizuna antolatuko dute, baina urtebetze guztietan legez, gonbidatuen “opariak” espero dituzte. Besterik ezean, Zorionak! m

Jakingarri

- **Sortzaileak:**Trino Azkoitia Azpitarte eta Andoni Iriondo Barrenetxea.
- **1980an** eman zituen lehenengo pausuak.
- **30 bertsolarik** dihardute bertso-eskolan
- **380 ikasle** dabilta bertsotan Uribe Kostako hezkuntza zentroetan,
- **Egoitza:** Karitatea 1, Aldai kulturegunea
- **www.albegetxo.net**
- **Harremanetarako:** 605 704 385

Euskarari bultzada berria

Kirol jardueretan eta umeen aisialdian euskararen erabilera aztertuko du Udalak



Bi egitasmo horietarako 50.383 euro bideratuko ditu Udalak

GEHI egitasmoaren barruan, beste bi esparrutan aztertuko du euskararen erabilera Getxoko Udalak: batetik, Getxoko umeen eta gazteen eskolaz kanpoko jardueretan eta aisialdian; bestetik, kirol esparruan. Pasadan urtean, kultur eta aisialdiko elkarteetako euskararen erabilera eduki zuen aztergai Udaleko Euskara Zerbitzuak, eta ostean osatu zuen erabilera bultzatzeko egitasmo zehatza. Oraingo egitekoa ere berdina da: aipatutako esparruetan erabileraren diagnostikoa egin, esparru bakoitzeko alde guztien laguntzagaz egitasmoa eratu, eta Udalaren funtzioak eta eskaini beharreko zerbitzuak zehaztu. Diagnostikoaren emaitzak udarako edukitzea espero dute.

“Getxoko haurren (0-6 urte bitartean) %66k D eta B ereduetan ikasten du, baina esko-

latik kanpo ez dute ia euskaraz egiten, euskara eskolako hizkuntza da, eta gure helburua aisialdian eta eskolatik kanpora euskararen erabilera bultzatzea eta horretarako aukerak sortzea da”, jakinarazi dute egitasmoaren arduradunek. Egitasmoaren hartzaileak eta eragileak haurtzandegiak (8), eliza eta parrokiak (9), akademiak (27), ikastetxeak (19), eta bestelako zerbitzuak dira (euskaltegiak...). Egiteko honetara 26.883 euro bideratuko ditu Udalak.

GEHI Kirolak

Kirol arloan, GEHI Kirolak egitasmoa osatzeko ere prozedura berdintsua jarraituko dute: diagnostikoa egin, funtzioak eta eginbeharrak zehaztu... 23 kirol talde edo elkartetan egingo da azterketa eta horretarako 23.500 euro zuzenduko ditu Udalak. m

ZABALIK DAGO KULTUR ETA KIROL TALDEEN LAGUNTZETARAKO EPEA

Getxoko Udalak kultur eta kirol elkarteek urteko diru-laguntza eskatzeko epea zabaldu du. Eskaerak martxoaren 15era arte egin ahal izango dira Udaleko Erregistro Orokorrean. Kirol elkarten artean 365.000 euro banatuko ditu udalak, eta kultur elkarten artean 90.000 euro. Aurkeztu beharreko agiriak hauek dira: eranskin-orria, aurtengo eta iazko ekitaldien txostena, bazkideen kopurua, Bizkaiko Foru Ogasunaren agiria eta, behar izanez gero, Diruzaintza Orokorren Gizarte Segurantzako agiria.

PRESO GETXOZTARREN SENIDEENTZAKO UDAL LAGUNTZAK

Getxoko Udalak euskal preso senideen bisitetarako laguntzak emateko araudi berria onartu du. Zigorra betetzen edo behin-behineko espetxealdian dauden getxoztarren senideek 2004an egindako bisitaldietarako diru-laguntzak arautzen ditu udal dekretuak. Diru-laguntzetarako 24.041 euroko kopurua ezarri du Udalak. Laguntza jasotzeko baldintzak dira: preso eta senidea biak Getxon erroldatuta egotea, senide bakarrik egin dezake eskaera eta iazko bisiten presondegiko agiria aurkeztu beharko du. Gehienez 12 bisitetarako laguntza emango du Udalak, eta diru-kopurua gartzelarekiko distantziaren arabera izango da.

IRISGARRITASUNA HOBETZEKO MILIOI 1 EURO

Irisgarritasuna hobetzeko helburuagaz, ia milioi bat euro bideratuko du Udalak: espaloiak jaitsi eta zabaldu, bideak egokitu eta kale aldapatsuetan eskubandak ipiniko ditu. Bizkaiko Zubi ondoko plazan eta Erromoko hainbat kaletan egingo dira egokitzapen lanak, eta Algortako zenbait kaletan jarriko dira eskubandak.

cianoplan
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Reprografía

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermakaketak •

Metroa

Maidaganeko trenbide-pasagunea lurperatzea adostu dute azkenean

Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurilaritzak eta Bizkaiko Garraio Par-tzuergoak 2029ra arteko Inbertsioen Plana sinatuko dute laster, eta egitasmo-aren lehenengo egitekoen artean dago Maidagan inguruko trenbide zatia lurperatzea. Lanak urte amaieran edo 2006 hasieran hasiko dira, eta 2008rako amaituta egongo ei dira. 1.250 metro luzeko tunela egingo dute trenbidea lur azpitik joan dadin. Horren albotik, Bidezabal eta Berango artean (“Goñi” gasolineratik hurbil) geltoki berria paratuko dute-la adierazi dute eta Ibarbengoa izena ipi-niko diote. Egitasmo honetako ardura-dunek 17 milioi euroko aurrekontua bideratuko dute trenbide-pasagunea lurperatzeko. ^m



Gizatiar Emakumeen Elkartearen 10. urteurrena
“Herriarren arteko harremana berreskuratu dugu”



Astelehen, martitzen eta eguaztenetan (18:00-19:00) Gobelaurre plazako (Erromo) egoitzan batzen dira

Erromo-Areetako emakumeen elkarteak 10 urte beteko ditu aurtan. 1.660 kide dauzka, eta barbarako: 26 lantegi ematen ditu, eguenero hitzaldiak antolatzen ditu, eta udalerriko beste jardueretan parte hartzen du. Elkarteko Carmen Feli Pereda (sortzaileetako bat), Begoña San Pedro (lehendakari orde) eta Aurora Fernandezegaz (diruzaina) egin dugu berba.

—Atzera begira, zelan joan da hamarkada? C. F. P.—Erromon egun berean bi emakume bere buruaz beste egin zuten, horrek biziki hunkitu ninduen. Orduan emakumeentzako topagunea sortzea otu zitzaidan: emakumeen arteko harremana bultzatu, ideiak garatu, ez geneuzkan aukerez baliatzeko. Auzoko elkarteengana jo, taldetxo bat batu eta elkarte sortu genuen. Jaiotzetik 3 dira gure helburuak: norbanakoaren garapena (lantegien bitartez), gizartearen parte-hartzea (Boluntarioen Eskola) eta ingurugiroarekiko harremana sustatzea (hitzaldiak, zinea...). Elkartearen lorpen handiena zera izan da: oso bakarrik egon diren emakumeek lagunak egin dituztela eta gurean babesa lortu dutela. Herriarren arteko agurra eta harremana ere berreskuratu ditugu gizatasunaren bidetik aurrera eginez beti. Esan-gura hori dauka “Gizatiar” berbak: boron-

datez gizatasunaren alde diharduen pertsona filantropoa. Emakumeok aukera gutxi eduki dugu eta horrek giza-mailan asko desitxuratu gaitu, gizonezkoen eredu lehia-korrek barnerarazi dizkigute emakumeok ez geneukalako giza-eredurik, eta gu lako elkarteek eredu hori eraikitzen lagundu dute, gizatasunaren eredu da emakumeena. Beraz, demokrazia ere aberastu dugula esan daiteke.

—Zelan antolatzen zarete? —Batzorde ezberdinak daude, bakoitzak bere egitekoa dauka eta bakoitzaren gaitasuna garatzeko aukera ematen dute. Metodologia zurruna dugu: boluntarioak gar-elako eta emakumezkoen nortasun senti-bera dela-eta arazoak sor ez daitezen. —Martxoak 8 laster, zer antolatu duzue? —Hilabete osorako ekitaldiak dauzkagu, eta

“Herriarren arteko harremana berreskuratu dugu, gizatasunaren bidetik”

Udalak prestatutakoetan parte hartuko dugu. Urteroko antzerki lana eskaini gura genuke, baina momentuz ez daukagu non egin, Andres Isasiko aretoa hartuta dagoelako. Egoitza ere txiki geratu zaigu ekitaldiak, erakusketak, etab. antolatzeko. Ekintzak egin gu-rra ditugu, baina non egin ez badaukagu... ^m

Ekoma antzerki talde jaioberriak
lehen emanaldia egingo du martxoaren 11n



Palaskarra eta bide bat laneko aktoreak. Sarrerek 6,5 euro eta 8,5 euro bitarteko prezioa daukate

Aitor Perezen ekimenez sortu zen orain dela urte bat Ekoma Teatro antzerki taldea Getxon. Hastapenetik lanari gogor ekin zioten, eta martxoaren 11n (20:00) taula-ratuko dute Getxo Antzokian estreineko lana: *Palaskarra eta bide bat*. Simulacro teatro taldeagaz batera ekoiztu du Ekomak antzezlan, eta Getxoko Antzerki Eskolako presidente Arantza Yurrek idatzi du eta zuzenduko du. Getxo Antzokian egingo den lehen emanaldia euskaraz antzeztuko dute, gaz-

telerazko bertsioa ere prest badaukate ere. *Palaskarra eta bide bat* antzerki lan tragiko-komikoa dela aurreratu du Aitor Perezek, drama eta umorea lapiko bereko osagaiak direla. *“Bidea eta bizitzaren paralelismoa egiten du, eta bizitzak sortutako oinazeek garrantzi handia daukate, eta oinaze horiei aurre egiteko modu ezberdinek ere bai”*. Taldea gernikar, getxoztar eta erandioztarrez osatuta dago: Eneritz Artetxe, Aitor Perez, Jabier Liñera, Aitor Villar eta Iraide Urkiaga. ^m

EKINTZAK GOGOTIK XVI. EMAKUMEEN ALDEKO JARDUNALDIETAN

Emakumearen errealitatea ezagutzera ematea, dauzkaten arazoiei aurre egiteko interbindeak sustatzea, egiten duten lana bultzatzea eta indartzea, eta emakumeari dagokion lekua onartzea daukate helburu XVI. Emakumeen aldeko jardunaldiak. Hona hemen antolatu dituzten ekitaldietako batzuk: Mari Carmen Cabarcosen margoen erakusketa, *“Maria Llena eres de gracia”* filmaren emanaldia (hilak 7, 19:30, Getxo Antzokia), V. Emakumeak Musikan jaialdiaren barruan piano eta klarinete-piano kontzertuak (hilak 11 eta 12, 20:00, Andres Isasi)... Horiek dira antolatutako ekitaldi batzuk baina beste hainbeste prestatu dituzte (ikus Agenda).

TURISMO BULEGOAK MARTXOKO ETA APIRILEKO EKINTZEN BERRI EMAN DU

Getxoko Turismo Bulegoak hil honetan eskainiko dituen ikastaro, irteera eta ekintzen berri eman du. Martxorako antolatu dituzten jarduerak hurrengoak dira: hipika eta urpekaritza ikastaroak, belauntzian egunpasa (hilak 12, 20), asteburupasa (hilak 11 eta 12) edota Aste Santurako irteerak (hilak 24-27), arku jaurtiketa (Urduliz, hilak 24), piragua (Plentzia, hilak 19), espeleologia (Baltzola, hilak 13) eta puenting-a (Azkarate, Gipuzkoa, hilak 12 eta 20). Erreserbak bi aste lehenago egitea gomendatzen dute Turismo Bulegotik. Hala ere, hileko ekintzen berri modu zuzenean jasotzeko aukera ere badago, postaz edo mezu elektronikoko baten bitartez, eta horretarako Turismo bulegora deitzea nahikoa da.

Informazio gehiago: 94 491 08 00

TURISMOAK ETA FURGONETAK ALOGEREAN

ZERGATIK EZ AUTO BAT BEHARRIZAN BAKOITZERAKO?

Norbanakoentzat zain enpresentzat; bakarrik nahiz besneria guztiarekin joateko; etxetik iristeko nahiz berri aldean erosteko...

Aukera ugaria ibilgailuak alokatzeko, zeuk hautatu: turismoak, monobolumenak, furgonetak eta ibilgailu industriak.

Beste Alde Ren a Caren auto bat dugu beharrian bakoitzerako. Eta, bestela, zeuretzat egokituko dugu eta zauden lekuan bertan entregatuko dizugu.

Informazio gehiago, **Renault Gaurisa eta Bilbo Berri** kontzesionarioetan

BESTE ALDE

rent a car

GALDETU ENPRESENTZAT DAUDEN BALDINTZAK

618 88 12 42

e-mail: besteaide@besteaide.com www.besteaide.com

Etxebizitza Leioan

Prezioen **gorakada moteldu** egin da eta bigarren eskuko etxebizitzaren **eskaintza txikiagoa** da azkenaldian

UK aldizkaria etxebizitzaren salerosketaz arduratzen diren agentziekin harremanetan jarri da Leioako etxebizitzaren egoera aztertzeko.

Hasteko, salerosten den bigarren eskuko etxebizitza kopurua, eskaintza gutxitzearen ondorioz, jaitsi egin da azkenaldi honetan. Onena agentziako Elena Velez de Guevarak eman digu gutxitze horren azalpena; *“etxebizitza berria asko garestitu denez, lehen etxez aldatzen zen jendeak orain bere etxeetan erreformak eginten ditu eta bertan geratzen da”*. Bestetik, kontsultatutako agentzia guztien arabera etxebizitzaren salneurriaren eten-

«Bigarren eskuko hiru logela eta bainugela bakarreko etxebizitzak 210.000 euro balio du Leioan»

gabeko hazkundea moteltzen ari da. Dena dela, hiru logelako eta bainugela bakarreko etxea Leioan erosi gura duenak 210.000 eurotik gora ordaindu beharko du, eta etxea eraiki berria izatekotan 330.000 eurotik gora.

Egoera auzoka edo inguruka aztertzen badugu merkeen artean Lamiako edo Ikea Mendi dira aipatuena. UK-k agentzietako iragarkietatik eskuratutako datuen arabera, orain salgai dagoen pisurik merkeena Lamiakon dago: 60 m²ko pisu baten



Etxebizitza berri asko eraikitzen ari da Leioan azken boladan

truke 171.288 euro eskatzen dira. Inguru garestienak nabarmentzeko orduan iritzi ezberdinak daude: Mendebile, Estartetxe, Erdialdea... AZ agentziako Esteban Maciasen arabera, esaterako, *“azkenaldian Estartetxe asko garestitu den gunea da”*. Prezioei begiratzen badiegu, Onena agentziako Elenaren esanetan garestitze handiena Txorierri auzoan eman da: *“lehen inguru merketakoa bazen ere, urte batzuen bueltan besteen mailara iritsi da”*. m



Badator Korrika Martxoaren 20an heritik pasatuko da



Aitor Fernandez de Martikorena AEK-ko irakaslea

Datorren martxoaren 20an AEK-k Euskal Herri osoan zehar antolatzen duen euskararen aldeko lasterketaldiak, Korrikak, Leioako kaleak zeharkatuko ditu. Leioako AEK-ko irakasle eta Korrikaren antolaketako kide den Aitor Fernandez de Martikorenak bi urtean behin egiten den korrikaren helburu nagusiak aipatu dizkigu: *“alde batetik, euskara kalera ateratzea eta euskaldun izateaz harro sentitzea; eta beste alde batetik, AEK-k berak finantziazio bidea izatea”*. Are gehiago, Leioako Lamia Euskaltegiko irakaslearen iritziz *“AEK*

Korrikarik gabe oso estu ibiliko litzateke”. Horregatik ere Korrikaren inguruan hainbat ekimen antolatzen dira jendearen laguntza jaso ahal izateko. Lagundu nahi duenak aukera ezberdinak ditu: kalean zehar egiten den diru bilketan sosen bat utzi, komertzioak Korrika laguntzaile bihurtu, kilometroren bat erosi (nahi izanez gero lekukoa garraiatuz) edo korrika laguntzaile pina erosi. Gainera, Aitorrek berak azaldu digun moduan korrika laguntzaile pinak balio duen 12 euroen truke komertzio askotan oso deskontu onak lor daitezke. m

GERIATRIA EGOITZA ERAITSIKO DUTE ETXE-BIZITZAK EGITEKO

Leioako Udalak San Bartolome auzorako proposatutako antolamendu aldaketak onartu ditu Bizkaiko Foru Aldundiak. Aldaketa horiek Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) zati baten berrikusketaren suposatzen duenez Foru Aldundiak berretsi behar zuen. Beraz, orain auzoan dagoen Bizkaia Geriatri Egoitza botako dute bertan etxebizitzak eraikitzeko. Zentro honen egoera zaharkitua eta utziak, eta jabeek eraikinaz ez arduratzeko jarrerak neurri hori hartzera bultzatu dute Udala. Horretaz gain, auzoko parkearen gunea 2.000 m²tan handitzeko asmoa agertzen du plan berriak.

“MAGIC PENCIL” ERAKUSKETA HILAREN 23RA ARTE

Gaur egungo ume eta gazteentzako liburu-iruziazioaren mundu zoragarria eza-gutzeko aukera ederra eskaintzen du “Arkatx Magikoa” erakusketak. Britainia Handiko hamahiru irudigile garaikide handien lanak biltzen ditu erakusketa honek. British Council-ek, kultura britainiarra sustatzeaz eta beste kulturekiko harremana sustatzeaz arduratzen den erakundeak, antolatu duen marrazketa erakusketa Kultur Leioan egongo da otsailaren 14tik martxoaren 23ra.

HAURRENTZAKO ANTZERKIA MARTXOAREN 13AN

Tanttaka taldeak *Tramankuluak* izeneko lan saritua ekarriko du Leioara. Izan ere, 2003. urtean Haurrentzako Liburuaren Sari Nazionala eta Generalitateko Arte Eszenikoetarako Haur Ikuskizun Onenaren Saria jaso zituen lan honek. Mundu magikoa, sormena eta irudimena uztartzen ditu antzezlanak. *Tramankuluak* 5 eta 12 urte bitarteko haurrentzako sortua da eta martxoaren 13an Kultur Leioan bi emanalditan egongo da: 10:30ean eta 12:30ean.



ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2

T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Sirimiri aisilekua

6 urtetik gorako neska-mutilentzat **aisialdiko zerbitzuak** eskaintzen ditu Sirimiri aisilekuak Altzagako azokaren eraikinean, erakusketa areto nagusiaren ondoan

Aisilekuak arratsaldeko 5etan zabaltzen ditu astegunetan atak eta 8:30ak arte eskolako lanak egiteko zein jolasten ibiltzeko lekua daukate Erandioko gaztetxoek. 200 metro koadro inguruko espazioan ping-pong mahaia, futbolinak, mahai-jokoak, tailerrak eta lagunekin egoteko lekua aurkitzen dute bertara hurbiltzen direnek. 14-15 urte artekoak erabiltzen dute gehienbat.

Lehenengo orduan eskolako lanak egiten dituzte, eta horretara doazenei puntualtasuna eskatzen zaie: bostak eta hamarrean atea itxi eta barruan daudenak geratzen dira seiak eta hamar arte. Orduan berriro zabaltzen dute atea nahi duten guztientzat eta gora egiten du builak. Jolas ordua hasi da.

«**Haurkide elkartekoek kudeatzen dute Udaleko Gizarte Ekintza Sailaren ardurapeko zerbitzu hau**»

Bataz beste 30-40 neska-mutil batzen da bertan egunero eta Irune Uria ibiltzen da guztien artean, begirale, eskolako lanetan laguntzen, tailerrak dinamizatzen. Irunek euskaraz egiten die bertara doazenei eta hasieran “*ah, como en la ikastola*” erantzuten omen zioten, baina apurka-apurka ohitzen doazela diosku. “*Hasieratik esan nien nik euskaraz egiten nuela eta hala egiten diet beti.*



Irune Uria egunero ibiltzen da neska-mutilekin beharrean

Orain normalizat hartzen dute eta D ereduan ez dabilzanak ere ahalegintzen dira niri esaldi ximple-ximpleak-eta euskaraz esaten”.

Ostiraletan eskolako lanak albo batera utzi eta filmak ikusten dituzte, tartean merienda egiteko atsedena dia hartuta, ez da eta erraza neska-mutilak ordu eta erdi jarraian jesarrita edukitzea.

Baina Aisilekuaren ekitaldiak ez dira areto barrura mugatzen. Urtean zehar egun

pasako lau txango, asteburu osoko bi irteera eta, aurten, lau eguneko udalekua ere egitekotan dira. Horrez gain, uztailan Aisilekua plazara ateratzen dute eta hondartzara nahiz mendira joaten dira.

Azken lau urteotan 400 umek eta gazte txok eman du izena Aisilekuan eta izena ematean bi euroko ordainketa sinbolikoa eskatzen zaie partaide direla sentiarazteko, derrigorrezkoa ez bada ere. m

Ainhoa Mardones > kick boxing irakaslea

“Borrokan ez goaz elkarri min egitera”



Estresa kanporatzeko kirol paregabea ei da kick boxinga, Ainhoaren esanetan

lazko Aste Santuaren ostean hasi zen Ainhoa Altzagako kiroldegian kick boxing irakasten eta, gaur egun, zazpi lagun ari dira berarekin kirol-borroka mota honetan saiatzen. Astelehen eta asteazketan iluntzeko zortzietatik bederatzietara tatamia dute bilgune eta beroketa ariketak egin ostean, teknika lantzen dute. Azkenean borrokaldiari ekiten diote.

Ainhoak azaldu digunez hiru espezialiteren arteko nahasketa antzeko bat da kick boxing deitzen dena: boxeoa, taekwondo eta karatearen ezaugarriak biltzen ditu batera, eta ostikoak nahiz ukabilak erabiltzen dituzte borrokalariek defentsarako eta atakerako. Ez dauka kata eta horrelako teknikarik. Erasokorra da.

Soineko estresa kanporatzeko modu egokia omen. Borrokan ari direnean elkar jotzen dute, baina ez doaz min egitera. Gehienbat markatzera doaz edo hala diote behintzat. Eskuetan boxeolarien antzeko eskularruak eta, badaezpadarako, berna-, hankarte eta aho-babesak jantzita ibiltzen dira borrokan.

Erandioko talde honetan oraindik ez dago inor lehiaketarako prest. Asier da taldeko kideetariko bat eta berari galdetu diogu ea zergatik hasi den honetan. “*Egia esan, nik lehenago pisua altxatzen nuen gimnasioan, baina han jende gehiegi batzen zela eta beste zerba it bilatu nuen. Hemen energia nahikoa erretzen da eta hemen nabil, gustura*”. m

EMAKUMEEN JARDUNALDI AK

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Erandioko Emakumeen Elkarte Sozio-Kulturalak, XV. Jardunaldien inguruan. Martxoaren 7an, astelehena, 19:00etan, Urteko Batzar Nagusia. Martitzenean, bazkaria eta dantzaldia. Eguaztenean, 19:00etan, Aretoko kirol-dantzen erakustaldia, Isidro & Nataliarekin. Eguenean, 18:30ean, hitzaldia: *Sexualitatea heldutasunean*. Barikuan, 18:30ean, jaia eta opari banaketa. Zapatuan, martxoak 12, 19:30ean, Bonbolinak antzerki taldearen emanaldia: *Que se mueran los feos* Ekitaldiak Bekoa ikastetxeko areto nagusian izango dira, martxoaren 8koak izan ezik.

ERANDIOKO 2. FILM LABURREN LEHIAKETA

Apirilaren 19ra arte zabalik dago lanak aurkezteko epea. 2004ko urtariletik gaur egunera arte egindako lanak izan behar dute, dokumentalak nahiz umorezkoak eta euskaraz nahiz gaztelaniaz eginak onartzen dira. Filmen iraupena 35 minutukoa izango da gehienez ere. Aurkeztutako filmeak maiatzaren 9tik 14ra egingo den zinemaldian jendaurrean erakutsiko dira eta amaiera ekitaldian sariak banatuko dira. Sariak: Umorezko filmik onenaren saria, 1.700 euro; dokumental laburrik onenaren saria, 1.700 euro; eta ikus-entzunezko eskoletako film laburrik onenari 1.000 euro. Lanak DVD formatoan aurkeztu behar dira, originala eta kopia.



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

ISO ZIURTAGIRIA
LORTZEKO BIDEAN SOPE-
LANAKO HONDARTZAK

Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen duen Hondartzak Kudeatzeko Sistema Bateratuan sartzea erabaki du Sopelanako udalbatzak. Sistemaren barruan egoteak Kalitateko ISO 9001 eta Ingurumeneko ISO 14001 ziurtagiriak lortzeko aukera ematen du. Bandera Urdinen ordezkoa da ISO ziurtagiria, izan ere udal arduradunek ez daukate konfiantza handirik Bandera Urdinak ematen dituen sistema-rengan. ISOren agiriei hondartzek irisgarritasun, higiene-osasun eta segurtasun baldintza egokiak betezen dituztela egiaztatzen dute.

Sopelanako hondatza



ITZARTU EMAKUMEEN
ELKARTEAK HAMAICA
EKINTZA ANTOLATU DITU

Emakumearen Eguna dela-eta, Itzartu Emakumeen Elkarteak hamaika ekitaldi antolatu ditu: antzerkia, hitzaldiak, tarta lehiaketa, zine emanaldia... Jarduera guztiak Hall Kulturallean egingo dira eta hona hemen, hurrenez hurren, jarduerak eta hitzorduak: Cosas de la vida antzerki lana (hilak 6, 19:00), Mujer al dia (hilak 7, 18:00), tarta txapelketa (hilak 8, 18:00. Sari banaketa hurrengo egunean egingo da, 18:00) eta azken egunean zine emanaldia (hilak 11, 18:30) eskainiko dute.

III. Herri-lasterketa

Hilaren 13rako antolatu du korrikaldia Munarri taldeak



Lasterketaren kartelaren irudia

Sopelanako Munarri Atletismo taldea III. Herri-lasterketa prestatzen dabil buru-belarri Udalak emandako diru-laguntzagaz. Martxoaren 13an, domekan, egingo da korrikaldia eta adin eta maila guztietako korrikalariek parte har dezakete, iaz 700 korrikalarik jardun zuten. Jauregizar plazan egongo dira irteera eta helmuga eta 10:00etan hasiko da lasterketa.

Lasterketari ekingo dioten lehenengoak aurrebenjaminak izango dira (400m); ostean, neska benjaminen txanda eta horien atzetik irtengo dira bejamin mailako mutilak (800m). Kimuen mailakoek ekingo diote gero, lehenengo

neskek eta geroago mutilek (1.200m). Haurren hitzordua 11:00etan izango da, eta neskek nahiz mutilek 2.200 metroko korrikaldia egin beharko dute. Handik 20 minutura, kadete eta gazte mailako neska-mutilak irtengo dira (4.400m) eta, azkenik, gainontzeko mailetako parte-hartzaileen txanda izango da (9.000m).

Izena emateko epea zabalik dago hilaren 11ra arte eta ordura arte dohakoa izango da, baina egunean bertan egingo dutenek 3 euro ordaindu beharko dute. Besteak beste, Hall-Kulturallean egin daiteke izen-ematea astegunetan 18:00etatik 20:00etara, edota hurrengo helbidean: ^m

Izen-ematea: munarriat@hispavista.com

Unai Espina > MUSeko lehendakaria

“Lauzpabost urtetan oso maila oneko taldea edukiko dugula uste dut”



Unai Espina, Jorge Nuñez eta Moreagako igerilari batzuk Abadesoloko igerilekuan

Moreaga Ugerzaleak Sopelana (MUS) taldea pasadan urteko iraila aldean sortu zen eta Unai Espina da taldeko lehendakaria eta entrenatzaileetako bat. Berak esan digun legez, igerilekua dagoen ingurua Moreaga izenagaz da ezaguna eta horregatik erabaki zuten taldeari izen hori ipintzea.

Sopelanan igeriketa taldea sortzeko ideia zelan jaio zen ere kontatu digu: “*Ni Sopelakoa betikoa naiz, eta ni ere neure garaian igerilaria izan nintzen; orduan zer geratzen zen, ba joan behar izaten nuela Faduraino egunero, eta horrela ibili nintzen 10 urtez*”. Garai hartan Sopelanan ez zegoen oraindik igerilekurik eta sopeloztar asko ibili izan dira Espinaren antzera. Kiroldegia eraiki ostean, orduan, herrian igeriketa taldea sortzeko erabakia hartu zuten. “*Jendeak kanpora joan behar ez izateko eta herrian bertan kirol hori egiteko aukera emateko sortu dugu taldea*”, diosku Espinak. Moreaga Ugerzaleak taldean 40

bat igerilari dabilta dagoeneko. Gehien-goek 1997az geroztik jaiotako ume eta gazte taldean dihardute, baina masterretako 7 bat igerilari ere badira. Espinak aurreratu digunez, “*hemendik lau zpabost urtera Bizkaia mailan lehiatzeko talde oso ona edukiko dugula espero dut*”. Egunero daukate entrenatzeko aukera Abadesoloko igerilekuan (18:30-20:00), eta adinaren arabera entrenamendu egunak gehiago edo gutxiago dira. Espinagaz batera (Fadura taldeko entrenatzaile ere izandakoa), Jorge Nuñezek eta Mario Ander Carabiasak dihardute, eta denek daukate entrenatzaile titulu gorena.

Uger egin gura duenak, badaki
Adin guztietako igerilariek dihardute MUS taldean, beraz gura duenak entrenamendu orduetan igerilekura hurbildu eta igeri-proba erraz bat gainditu besterik ez du egin behar. ^m

LAIKAK
Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

4 bide
pinturak

RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991

susi hartz
jan eta edan

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

EMAKUMEEN ALDEKO JARDUNALDIAK HILAREN 18RA ARTE

Martxoaren 18ra arte ekintzez beteta dago Emakumeen aldeko jardunaldien egitaraua: zapatu eta domeka honetan, Autodefentsa pertsonalerako ikastaroa eskainiko dute; martxoaren 8an, Berangoko alkate Miren Dobaranek jardunaldiari hasiera ofiziala emango die (19:00, Berangoeta kultur etxea) eta ostean azkaria eta kalejira prestatu dute. Hilaren 11n, emakumei eskainitako antzerki ikuskizuna egongo da (19:00, Berangoeta); martxoaren 15ean, hitzaldia antolatu dute (19:30, Berangoeta); eta *Ebano Sticks* klarinete laukotearen kontzertuagaz emango zaie amaiera jardunaldiei (19:00, Eskolen jantokia).

ZUBEROAKO MASKARADA IKUSGAI HERRIKO KALEETAN HILAREN 6AN

Herriko Simon Otxandategi dantza taldeak Zuberoako Maskarada hurbilduko du Berangoko kaleetara. Ikuskizuna martxoaren 6an eskainiko dute dantzari berangoztarrek eta hurreratzen direnek Zuberoako Maskaradaren protagonistak hurbil-hurbiletik ezagutzeko aukera edukiko dute: Manixalak, karestuak, zamaizain, xorrotxak, bohaumeak, Pitxu... Zuberoako Maskarada hiru atal nagusitan banatzen da: Barrikada (kalejira), Branlia eta ofizioarena. Beraz, Maskarada zer den jakin gura duenak badaki nora jo hilaren 6an, domekan.



Ludotekako begiraleak

Gaur egungo umeen hezitzaileetako batzuk



Saraia eta Iratxe ludotekako begirale berangoztarrak

Hamar urte dira Berangoko ludoteka ume berangoztarren kabia dela astegunetan, 16:30-18:30 (3-8 urte) eta 18:30-20:00 (9-14 urte). Han begiraleen laguntzagaz, jolastu bakarrik ez, umeek gauza asko ezagutu eta ikasten dituzte; izan ere, gaur egungo hezitzaileetako batzuk dira begiraleak.

Gaur egungo umeak eta euren garai-koak oso desberdinak direla dioskue Iratxe Gandarias eta Saraia Fernandez ludotekako begiraleek: *“geldi-geldi geratzen dira, ez dakite taldean jolasten, gero eta gehiago nabari da umeak bakarrik jolastera ohituta daudela, eta askok betiko jokuak ere -oka, partxisa...- ez dituzte ezagutzen”*. Gaur egungo begiraleen lana

umeak mugiaraztea, elkarregaz jolasten irakastea dela aitortu digute. Horrez gain, baloreak *“asko galdu”* direla ere adierazi dute *“ez daukate lotsa apurrik ere, ez dakite gauzak batzen, garbitzen...”*. Beraz, gauza asko ikasten dituzte ludoteketan: joku berriak, taldean jolasten, ikastolaz kanpo euskaraz jolasten, harremanetarako erabil daitekeela... Eta Berangoko ludotekan euskal mitologiako pertsonaiak ere ezagutu dituzte, barikueko kontatzen dizkieten ipuinei esker. Otsaila euskal mitologiaren txanda izan da eta basajaun, Mari, lamiak... eta abarren berri izan dute umeek; *“printzesak, Errauskine... bakarrik ezagutzen zituzten, eta egia esan asko gustatu zaizkie gureak”*.^m

Roberto Borau > naturopata

“Landare eta belar guztiak onak dira, zelan eta zertarako erabili jakinez gero”



Erandioko Txinboak 5 kalean dauka Borauk kontsultorioa. Harremanetarako: 615 765 276

Plentziako kultur etreak antolatu duen “Etxeko botika” ikastaroa eskaintzen du Roberto Borau naturopata eta homeopatak. Getxon bizi den leioaztarra da Borau eta Plentziako aparta, Galdakao, Ugao eta beste hainbat herritan ere eskaintzen ditu hitzaldi eta ikastaroak. Gogoan dauka zelan hasi zen berbaldiak-eta eskaintzen: *“Berangon eman nuen nire lehengo hitzaldia onain dela urte asko, eta harrezkeroztik herri askotatik deitzen didate etxeko botika eta sendabelarren gaineko ikastaroak emateko”*. 20 bat lagunek dihartute Plentziako ikastaroan eta eskualdeko mendi eta larretan erraz aurkitu daitezkeen belar eta landareakaz ukenduak edo gantzuak, likoreak, infusioak, masajetarako olioak, ilerako xanpua, aire-fresagarriak, koloniak... etab. luzea zelan egin ikasten dabilta. Borauren esanetan oso erraza da landareakaz produktu horiek guztiak egiten ikastea eta berak azaldu digun legez, *“ikastaroen helburua da, teoria eta praktikaren bitartez, gure mendi*

eta landetako belarrakaz zein landareakaz mila produktu egin daitezkeela ulertarazi eta irakastea da”.

Sendabelarren inguruan, Borauren iritiz sendabelar denak onak dira, ez dira kutsagarriak, hori berak ondo argitu duenez, *“esku onetan badaude, zelan eta zertarako erabili ezagutzen duen baten ardurapean badaude”*. Adb. huntzaren orriak jaki moduan toxikoak dira, baina ardao-ozpinagaz egosiz gero babak kentzeko primerako sendagaia da.

Eztula kentzeko jarabea

Eztula kentzeko etxeko jarabea eta dendetakoak *“aurkezteko moduan”* bakarrik ezberdintzen direla dio Borauk, eta etxean jarabea zelan egin ere azaldu du: *“pote batean parte bat ur eta parte bi azukre ipini eta ondo nahastu, nik azukrea baino ezta erabiliko nuke, eta birikietan ondo egin diezagun eukaliptu edo lanarja-lore ezta erabiliz gero hobe”*.^m



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15



URDULIZ

Teléfono: 940 761 120

Ajuria taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta askotarikoak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

URDULIZKO TRENBIDEA
LURPERATUKO DUTE,
BAINA ORAINDIK EZ

Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurilaritzak eta Bizkaiko Garraio Patzuergoak 2029ra arteko Inbertsioen Plana sinatuko dute laster, eta egitasmoaren egitekoen artean dago Urdulizko herriguneko trenbide zatia lurperatzea. Lanak 2007an edo hasiko ei dituzte eta 800 bat metroko trenbide-pasagunea lur azpitik ipini. Lanon aurrekontua 18 milioi eurokoa dela aurretatu dute egitasmo honetako arduradunek.

“18 EGILE-18 ARGAZKI.
URIBE KOSTAKO IRUDIAK”
ERAKUSKETA GORLIZEN

Pasadan urtean aldizkari honek antolatutako erakusketa ibiltaria Gorlizko kultur etxean egongo da ikusgai hilaren hamabostera arte. Uribe Kostako 18 argazkilari handik utzitako 18 argazki apartek osatzen dute erakusketa. Iaz argazkiok UKren erdiko orrietan atera genituen.

APIRILA, MAIATZA ETA
EKAINERAKO IKASTARO
BERRIAK LEMOIZEN

Marraskia edota pintura, eskulanak, pilota, yoga, antzerkia, euskal dantzak, eta euskara ikastaro eta lantegiak antolatu ditu Lemoizko kultur etxeak. Izena emateko edota informazio gehigarria gura duenak Kultur Etxera joan besterik ez du egin behar. Ikastarook apirillean hasi eta ekainera arte iraungo dute.

Harremanetarako: 94 687 90 37

GORLIZ

Korrika jaia egingo dute martxoaren 13an



2003ko Korrika Plentzia eta Barrika arteko muga zeharkatzen

Korrika Jaia antolatu dute Gorlizen martxoaren 13an, domeka. Korrika14 hilaren 19an pasatuko da eskualdetik eta hori ospatzeko jaia antolatu dute Gorlizen. Dantzan ikasteko lantegiak eta dantza erakustaldia, gaztelu puzgarriak, eta umeentzako lantegiak antolatu dituzte eguerdiko 12:00etatik aurrera. Ostean, herri bazkaria egingo dute Gorlizko Jubilatuen Etxean. Festari amaiera emateko 17:00etan ipuin-kontalariak ikuskitzuna emango dute Gorlizko Erakustaretoan.

Bestalde, Gorliz, Plentzia eta Lemoizko Korrika batzordeek eta udaletxeek “Urrezko Kilometroa” egitasmoa ipiniko dute martxan. Ekimen horren bitartez urteetan herri bakoitzean euskara edo euskal kultura bultzatu duten pertsona edo elkarteak omendu gura dituzte. Oraindik ez dago erabakita zeinei eskainiko dieten “Urrezko Kilometroa”. Hautaketan eta Korrikaren antolakuntzan parte hartu gura duenak badauka oraindik aukera. m

Mar.6 -20

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Fax.: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

► **David Arteagoitia Garcia-ren grabatuak.** Algortako kultur etxea. Martxoak 7-18.

► **Mari Carmen Cabarcosen olioak.** XVI. Emakumeen aldeko jardunaldien barruan. Erromoko kultur etxea. Martxoaren 12ra arte.

► **Rosario Gutiez, Juanjo Salado eta Igor Ortegaren argazkiak.** XVI. Emakumeen aldeko jardunaldien barruan. Erromoko kultur etxea. Martxoak 15.

GORLIZ

► **18 egile-18 argazki. Uribe Kostako irudiak, argazkiak.** UK aldizkariak bultzatutako erakusketa ibiltaria. Erakusketa gela. Martxoaren 15era arte.

BERANGO

► **Ilustraciones, Mikel Valverde.** BBKren erakusketa ibiltaria. Berangoeta kultur etxea. Martxoaren 13ra arte.

► **Manualidades y patchword, Patricia Rapson.** BBKren erakusketa ibiltaria. Berangoeta kultur etxea. Martxoak 14-apirilak 1.

ERANDIO

► **Bizkaiari begira.** Joan Fontcubertaren lanak. Josu Murueta kultur gunea. Martxoaren 11ra arte.

► **Fito R. Escuderoren margoak.** Udal Merkatua. Martxoaren 19ra arte.

ZINEMA

GETXO

► **Doraemon gladiadorea.** Haur Zinea euskaraz. Getxo Antzokia. Martxoak 6, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

► **Maria Ilena eres de gracia.** Zine-Kluba. XVI. Emakumeen aldeko jardunaldien barruan. Getxo Antzokia. Martxoak 7, astelehena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

► **Triple Agente.** Cinema Paradiso. Azpituiludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Martxoak 11, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.

Kraska gazte konpartsak antolatu du Gazte Eguna

► **Gora Leioa Gaztea**

Gazte Eguna hilaren 12an Leioan

Kraska gazte konpartsak antolatu du Gazte Eguna. Jaialdiko ekitaldiak lau leku desberdinetan banatuko dira: Osasun Zentro alboko plazatxoa (1), Tigre plaza (2), Sakoneta ikastetxeko jolastokia (3) eta Plaza Gorria (4). Lehenengo gunean Gazte azoka, grafiti eta mural egileen topaketa, serigrafia lantegia eta malabaristen topaketa egongo dira goizean zehar; bigarren gunean umeentzako jolasak eta euskal dantzen erakustaldia; hirugarren gunea goizez kirolaren gunea izango da eta bertan egingo dira herri bazkaria eta antzerki emanaldia ere; eta laugarrena kontzertuen gunea izango da (19:00).

• **Non:** Leioa • **Noiz:** Martxoak 12 • **Ordua:** Egun osoan zehar

BERANGO

► **Hellboy.** Gazteleku. Martxoak 20, domeka. 17:30.

ANTZERKIA

ERANDIO

► **Marilurrek 5.722.630 ipuin dakizki.** Ana Meabe ipuin-kontalaria. Euskaraz. Josu Murueta kultur etxea. Martxoak 10, eguna. 18:00.

SOPELANA

► **Cosas de la vida.** Itzartu elkartearen ekimenez. Kultur aretoa. Martxoak 6, domeka. 19:00.

LEIOA

► **Izena duen guztia omen da.** Dantza ikuskizuna. Aukeran taldea. Kultur Leioa. Martxoak 11, barikua. 20:30. Sarrera: 10 euro.

► **Tramankuluak.** Ume-antzerkia. Tanttaka taldea. Kultur Leioa. Martxoak 13, domeka. 10:30 eta 12:30. Sarrera: 3 euro

MUSIKA

GETXO

► **V. Emakumeak Musikan jaialdia.** Carmen Cuesta eta Alvaro Guijarro piano bikotea. XVI. Emakumeen aldeko Jardunaldien barruan. Andres Isasi Musika Eskola. Martxoak 11, barikua. 20:00.

► **V. Emakumeak Musikan jaialdia.** Antonio Arias (txirula) eta Gerardo Lopez-Laguna (piano). XVI. Emakumeen aldeko jardunaldien barruan. Andres Isasi Musika Eskola. Martxoak 12, zapatua. 20:00.

LEIOA

► **Javier Krahe.** Kantautorea. Kutur Leioa. Martxoak 18, barikua. 20:30. Sarrera: 15 euro.

BESTEAK

► **Emakumeen eskubideak.** Hitzaldia. Algortako Bilgune Feministak antolatuta. Villamonte kultur Etxea. Martxoak 7, astelehena. 19:00.

► **Irrati maratokia.** Algortako Bilgune Feministak antolatuta. Koska Irratia 108.0. Martxoak 8, martitzena. 12:00.



Ez da Suitzā, Unbe ingurua baizik



Unben kateak beharrezkoak izan ziren

Elurra gurean

Hiztegi Entziklopedikoaren arabera, hodeietatik maluta edo izotz-bikor zuritan erortzen den ur izoztua da elurra. Gutxitan ikusten da elurra gurean; izan ere, gure kostaldeko klima epela ez da fenomeno natural horren laguna izaten. Bada otsaileko azken egunetan gure eskualden nekez ematen den elurtea ekarri zuen. Han hemenka ibili zen gure argazkilaria geruza zuri fin horrek gure bazterrak zelan estali zituen erretratatzeko. Hauxe duzue bere lanaren emaitza.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Baserría Barrikan



Artea Andrakan



Elur panpina



Santa Mariñe



Belarmeta Barrikako Ganen



Unbeko bidegurutzea



Elurraren pisuagatik eukaliptuak errepideraino makurtu ziren



Urdulizko panoramika Santa Mariñetik

Badator Korrika, eta badira hamalau. Aurton Bilbon amaituko dela-eta, euskararen aldeko lasterketa ez da akabuko egunera arte igaroko Uribe Kostatik. Beraz, egun batzuk dauzkagu oraindik zain egoteko. Itxaronaldia arintzeko, Korrikaren inguruko hainbat kontutxo dakarren erreportajetxo hau prestatu dizuegu. Korrikaren historiaren gaineko datu batzuk emango dizkizuegu, eta aurtengo ediziorako AEK-k zabaldu gura duen mezuzaz ere berba egingo dugu, besteak beste.

Korrika 14ren zain

Norberaren konpromiso bila

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Datu batzuk

Ibilbidea: Orreaga-Bilbo
Kilometro kopurua: 2.150
Hasiera eguna: Martxoaren 10a.
Amaiera eguna: Martxoaren 20a.
Uribe Kostan: Martxoaren 20an (azken egunean), txanda bitan. Goizez, Lemoiz-Gorliz-Plentzia-Barrika-Urduliz-Sopelana-Berango-Getxo. Arratsaldean, Erandio-Leioa.



Korrika 14 Orreagan hasiko da martxoaren 10ean, eta Bilbon amaituko da martxoaren 20an. Hauxe izango da, beraz, euskararen aldeko lasterketa hiriburuko batetik abiatzen ez den bosgarren aldia (Oñati, Korrika 1; Atharratze, Korrika 4; Hendaia, Korrika 5; eta Arantzazu, Korrika 10). Amaitu, berriz, beti amaitu da hiribururen batean. Historian zehar, Bizkaiko hiriburua izan da Korrika amaiera gehien hartu duen hiria: sei, aurtengoa kontuan hartuta. Donostian hiru bider amaitu da, Iruñean eta Baionan bina, eta behin baino ez Gasteizen, Euskal

burrena ere izan zen: 1.820 kilometro. Hortik aurrera gero eta ibilbide luzeagoak prestatu zituzten AEK-koek, eta bederatzigarren ediziotik hona (1995etik, beraz), Korrikak 2.150 kilometro edukitzen ditu beti.

Luzerari dagozkionak ez dira lasterketak jasandako aldaketa bakarrak. Maiztasuna ere desberdina da orain, hasierakoagaz konparatuta. Lehenengo lau biderretan Korrika urte eta erdian behin egin zen, baina laugarrenetik bosgarrenera urte bi igaro ziren, eta harrezkeroztik beti egiten da udaberrian, 2 urtean behin.

«Bilbo da Korrika amaiera gehien hartu duen hiria; sei, aurtengoagaz»

Herriko bigarren hiririk handiena izan arren. Bestalde, Korrikak ez du inoz Bilbotik urten. Horretan Iruñea da nagusi: lau bider abiatu dira bertatik lasterketako parte-hartzaileak.

Lehenengo Korrika 1980ko azaroaren 29an hasi zen. Oñati-Bilbo zeukan ibilbidea, eta lelo bi, bata euskaraz (*“Zuk ere, esan bai euskarari”*) eta bestea gaztelaniaz (*“40.000 adultos están haciendo Euskadi”*). Hura izan zen erdarazko lelorik eduki zuen Korrika bakarra, ondorengo guztiak euskara hutsezkoak izan dira-eta. La-

Hala ere, datak ez dira beti berdinak izaten, Aste Santuaren arabera izaten direlako.

Euskaldun berriak protagonista

Korrika guztiek bezala, aurtengoak ere badauka bere leloa: *Euskal Herria euskalduntzen; ni ere bai!* Eta horren atzean mezu bat: guztioi dagokigu euskararen aldeko konpromisoa hartzea. Dakienak erabiliz, erdipurdi dabilenak hobetuz, ez dakienak ikasiz. Azken horiei, batez ere, dei berezia egin gura die AEK-k, eta ho-



2003ko Korrika Algortan zehar

retarako euskaldun berriak gogora ekarri ditu.

Hasteko, Korrika Kulturalaren lehen ekitaldia, urtarrilaren 22an, iaz zendutako Andolin Eguzkitzari omenaldia izan zen. Euskaltzain, euskaltzale, idazle... eta eus-

«AEK-k euskaldun berriak ekarri ditu gogora aurtengo Korrika Kulturalan»

kaldunberri; Eguzkitza, Ezkerraldeko giro erdaldun petoan hazitako santurtziarra, *“euren burua euskalduntzea, ‘euskaldun berri izatea’, erabaki duten milaka euskal herritarren ikurtzat”* jo du AEK-k..

Gainera, euskalduntze eta alfabetatze koordinakundeak euskaldun berri batzuen

testigantzak batzen dituen bideo bat ekoiztu du. Horieta batzuk sano eza-gunak dira, eta euskara ikasteaz geroztik euskal kulturari dihardute: musikan, literaturan... Euskara ikasi duten atzerri-tarren adibiderik ere ezin falta, jakina. Guztira, 43 lagunek eman dute bideoan euren euskalduntze prozesuaren berri.

Korrika Uribe Kostan

Korrikak ez du hutsik egiten gure eskualdean. Betiko legez hemendik ere igaroko

Korrikako kantua

Ni ere bai!

Ni ere bai!, Aurtengo Korrikaren kantua, algortar baten eskutik dator. Edo, eskutik baino, hobe litzateke ahotik esatea. Afrika Bibang abeslariak eduki du, izan ere, ondoko berbak bere ahots bikainaz musika bihurtzeko ardura.

Gauzak esateko hitzak beharrezkoak dira denok ulertzeko sortzen dira hizkuntzak loreak bezalakoak egunero zaindu beharrekoak ura bota behar hiltzen dira bestela.

Euskara bihurtuko da loretxu bat guk denok landuta Goazen ba korrika! (bis) Euskara mintzatuz gure artean belaualdiz belaualdi Korrika! Korrika! Ni ere bai.

Goazen korrika geure euskara zaintzera nagusiok ere badugu aukera ez izan lotsati ez esan berandu dela guztion laguntza eskatzen da korrika!

Euskara bihurtuko da...

da; aurtun akabuko egunean izango da, Bilborako bidean dagoeneko. Goizetik sartuko zaigu lasterketa Uribe Kostan, goizeko seietan, Lemoiztik. Hortik aurrera, Gorliz, Plentzia, Barrika (beheko aldea), Urduliz, Sopelana, Berango eta Getxo zeharkatuko ditu. Algortatik Erromora joango da, eta handik Areetara; azkenik, Korrika Bizkaiko Zubira igoko da, orain dela urte bi bezala, Uribe Kosta utzi eta Ezkerraldera joateko. Hori goizeko 9:40ean jazoko da gitxi gorabehera. Gerago, arratsaldeko 16:15etik aurrera-edo, Erandiotik eta Leioatik ibiliko da.

Egin diezaiogun ondo merezitako harrrera beroa! ^m



Aixerrota misteriotsua

Juan Gomez

Gaua, ilbetea, eraikin bat ilunpean... Aixerrotan zeozer gertatuko da...
Behintzat horixe otu zaigu Juan Gomez argazkilari erandioztarrak helarazi digun
irudi enigmatiko hau ikustean.

[berbetan]

Aitor Zabalgogeaskoa bilbotar jaio zen, baina 13 urte dauzkanetik bizi da Algortan. Sarritan kanpoan egoten da baina. Ez da medikua, baina *Médicos sin fronteras* erakundeko larrialdi taldeko burua da. Orain hilabete gutxi Ozeano Indikoa suntsitu zuen tsunamiak Nairobín harrapatu zuen, Ugandan eta Sudanen bere erakundearentzako lan batzuk egitetik zetorrela; azken momentuan hegaldia aldatu eta Sri Lankara joan zen, historiako hodamendi naturalik handienak utzitako heriotz-arrastoaren erdira. Ez du horretaz berba egitea gustuko, ez lukeelako gura inork bere buruari domina ipintzen dabilenik pentsatzea. Lan isila eta porrokatua da berarena eta beragaz dabilzan milaka boluntarioena. Eta isiltasunarenganako zaletasun hori igarri egin da elkarrizketaren lehen minutuetan, baina azkenean luze egin genuen berba Zabalgogeaskoak egunero ikusten duen mundu honetako sufrimenduaz.

Aitor Zabalgogeaskoa

Mugak hausten

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Mugarik gabeko medikuak zarete, bai-na muga dezente ipiniko dizute...

—Jakina. Horien gaineratik salto egitea da kontua.

—Gaineratik salto egin ala bertatik igaro?

—Salto egin, salto egin.

—Eta zelan lortzen da hori?

—Etenbako presio ariketa eginez, benetan beharrezkoa den lekuetan lagunduz. Behin eta berriz ahalegintzea da kontua.

—Zelan sortu zen *Médicos sin fronteras*, zertarako?

—Frantziar sendagile batzuk Bangla Deshen gertatutako zikloi batetik etorri ziren, eta beste batzuk 70eko hamarkadan Biafran izandako gerra odoltsu batetik, eta denak bat etorri ziren laguntzeaz gain, halako zezoez gertatzen denean esan egin behar zela. Horixe da erakundaren jatorria. Ekintza eta salaketa uztartzen ditugu.

—Hemen mediku dabilen batek badauka halako estatus bat. Zer dakar horri uko egin eta zuena bezalako erakunde

batean beharrean hasteak?

—Hara, *Médicos sin fronteras*en erdibana gaude sendagileak eta sendagileak ez gare-nok. Eta denontzat gauza bera da. Jende askok egiten dio uko estatusari, baina badituzu beste gauza batzuk ordainean: lanak ematen duen poza, leku desberdi-nak ezagutzea, momentu jakinetan plane-ta honetako leku jakinetan egotea... Ho-rrek badu bere garrantzia.

“Ozeano Indikoko hondamendia naturala izan da, baina ez hain naturala”

—Eta gainerako lankideek zer diote? Arrarotzat zauzkatete? Kritikatzen zaituz-tete?

—Ez, izan ere gure mediku, erizain... as-kok badaukate euren lan normala. Sei hilabeteko lan-utzialdia eskatzen dute, joan egiten dira eta gero berriz etorri atze-ra. Gugaz dabilzan gehienek holan egiten dute, joan eta etorri. Eta hemen bizimodu

arrunta daukate. Zure herriko anbulato-rioko medikua izan daiteke.

—Orain gutxi Indikoan egon zara. Han-go egoera itzela izango da, ezta?

—Bai, Sri Lankan egon nintzen. Hango egoera hondamendi natural batek eragin du -ez hain naturala, baina naturala azken batean- eta eragin mugatua dauka. Hau da, itsasertzetik lehorrerantzko lehen 600-800 metroetan gertatu da guztia, baina

suntsipen eta heriotz-tasa ikaragarriakaz. Orain, berreraikitzean datza guztia.

—“Naturala, baina ez hain naturala” di-nozu..

—Hara, Ozeano Barean hau ez zen egun-do gertatuko. Han badagoz tsunamiak au-rreikusteko sistemak. Japonen badauka, Australiak badauka, AEBek ere bai. Sai-hestu zitekeen.



[AitorZabalgogeaskoa]

—Zer gertatzen da, zergatik joan behar dira Lehen Munduko medikuak herrialde horietara? Han ez dago sendagile nahikorik, ala?

—Sri Lankan, barbarako, nahikoa osasun-sistema arerratua daukate. Baina hemen gauza bera gertatuko litzateke bihar bertan 5.000 lagun hilko balira hondartzan, bat-batean. Laguntzea ez dago inoiz sobera.

—Hala ere, zuek leku batera joaten zaretenean, beti izaten da gertakari batek era-

—Arrazoi bat zikoizkeria da, beste bat elkartasun eza, eta beste bat sistemaren izaera bera, jende asko uzten du-eta kanpoan. Momenturen batean esan beharko da osasungintza, oinarrizkoena behintzat, ezin dela negoziua izan, guztiongana ailegatuko den zer bat baino.

—Eta nor da erantzulea? Farmazia-industria, gobernuak... nor?

—Denak. Farmazia-industriak badauka erantzukizun handia. Esate baterako: me-

edukiko du segurantzean, baina kanpotik ikusita *La vida de Bryan*en eszena ospetsu hura gogorarazten du. Denak elkartuta, ez litzateke indar handiagoa egingo?

—Desberdintasunak dagoz gure artean, batez ere ideologikoak. Lan desberdina egiten dugu. Ni Europako bost bulegotan dagozen hirurogehi lagunetik gorako larrialdi talde bateko arduraduna naiz; pertsona horiek prest dagoz, eguneko 24 orduetan zehar, edonora berehala joateko. Garraibideak dauzkagu prest, abioiak... Larrialdietan jarduten dugu, eta ia beste inork ez du hori egiten, Nazioarteko Gurutze Gorriak eta besteren batek izan ezik. Beste batzuek bestelako lanak egiten dituzte. Badira gizarte-salaketari garrantzi handiagoa ematen diotenak -guk, esaterako, ez dugu egiten-, eta beste batzuek ospitale batek iraun dezan egiten dute behar. Nork bere zeregina dauka.

—Laguntza humanitarioak gero eta deskonfiantza handiagoa sortzen du kaletar arruntongan. “Euro bat eskatzen didate, baina nora joango ete da nire euroa”, galdetzen diogu geure buruari.

—Uste dut guk orain zeozer utzi dugula agerian, tsunamiaren hondamendia gertau eta hiru egunera dirua batzen jarraitzeari uko egin genionean, egin genezakeena egiteko bageneukalako nahikoa. Horrek itaun bat ipintzen du mahai gainean: zer egiten dute gainerakoek diru horregaz? Eta batez ere, zer egiten dute instituzioek? Jendea nagusia da dirua nori eta zergatik emoten dion jakiteko. Guk dioguna zera da: jendeak dirua emoten duenean, ez dezala beste barik emon, eta bere buruari itaun diezaiola: nori eta zergatik? Argi dago laguntza humanitarioaren arloan denak ez direla errugabeak eta asmo onekoak. Erakunde pilo batek ez du lan onik egiten, benetan. Nik jendeari gomendatuko nioke ospea daukaten erakunde handiez fidatzea; bestela, auzo mailako erakunde txikiez, horiek kontrolatzea errazagoa da eta. ^m

“Inoiz esan beharko da osasungintzak negoziua izateari utzi behar diola”

ginda -hondamendi naturala, gerra...-, ala leku horiek azpiegiturretan dauzkaten hutsuneak betetzera zoazte?

—Gauza bat laguntza humanitarioa da, eta beste bat garapenari laguntzea. Osasungintzaren garapenari, esate baterako. Laguntza humanitarioa norbaiti laguntzea da, hura laguntza beharrean dagoen momentu jakin batean. Nik anbulantzia bategaz parekatzen dut. Denok gura dugu autoagaz istripua daukagun egunean DYAk anbulantzia etortzea guregana; egun horretran baino ez dugu behar, eta ez egunero, baina batek egon behar du. Istripua diodan bezala, hondamendi naturala edo gerra esan nezake; kontua da badagoela egun horietan “anbulantzia” horren beharra daukan jendea, eta gero berriro beharko ez duena.

“Argi dago laguntza humanitarioaren arloan denak ez direla asmo onekoak”

—Ailegatzen zarete ailegatu beharreko leku guztietara?

—Inoiz ez, eta ez da gure asmoa; ezinezkoa litzateke! Oraintxe 43.000 behargin edo laguntzaile inguru dauzkagu, eta hala ere ezin heldu denari...

—Zergatik hiltzen da horrenbeste jende orain dela urte asko senda daitezkeen gaitasunak jota?

ningitisaren aurkako txerto bat dago, orain dolar bat balio duena eta orain urtebete baino gitxiago 70 dolarretan zegoena. Zeozer ez dago ondo, eta hori da guk adierazi gura duguna. Egia da farmazia-industriak bere irabaziak eduki beharko dituela, eta zeozer berreskuratu beharko duela ikerkuntza egiteko, baina euren sendagaiak jende askorengana errazago ailegaraztea posible da. Arazoa da jende ikustezin asko dagoela, sisteman sobera dagoen jendea; ezin ordain dezaketenez, kanpoan geratzen dira.

—Presio nahikoa egiten da, posible da gehiago egitea?

—Guk presio teknikoa egiten dugu. Hau da, gure eguneroko jardunean, Afrikako edozein txokotan, frogatu egiten dugu tratamendu merke bategaz jendeak bizi-

raun dezakeela, baldintzarik okerretenan ere. Beste batzuei dagokie -gizarte mugimenduei edo dena delakoei- gauza hauek salatu eta aldagetak eskatzea. Gure lana ekintza bat egin eta benetan jendeak oso modu merkean osasun-harrera eduki dezakeela frogatzea da.

—*Médicos del mundo, Médicos sin fronteras, Medicus mundi...* Azalpen logikoa

“GURE IRRATIA” BIDEGURUTZEAN!!

Lapurdiko Herri Irratiak bere 23 urteko itxorian

aldaketa nagusia biziko du aurten:

lokal berri bat eraikitzaera doa

eta zure laguntza baitezpadakoa du.

GURE ERRONKA:
EUSKARAREN BIZIRAUPENA EUSKARA GALTZEN ARI DEN EREMUAN

GURE IRRATIAK FUNTSEZKO PAPER AUKA BIHAR EUSKARA BIZI DADIN
LAPURDIN ETA EUSKAL HERRI OSOAN

Ipar Euskal Herria euskara desagertzea onartzen ez dugulako, eskerrak zure laguntza premiatsuagatik jasotzeko.

Herriaren sustengueren jasotzeko:

-Ipar Euskal Herria: Crédit Mutuel- 15000 09277 00050514040 64
-Hego Euskal Herria: Euskadiko Kuba- 3005 0059 81 0590071330

Gure Lokala





GAIXOAK EGUZKITAN

Gorlizko erietxea, 1920

San Pedro egunean 86 urte beteko ditu Gorlizko ospitaleak. Bilboko Euskal Museoak utzi dizkigun 20. hamarkadako argazkiok hastapen garai haien lekuko dauzkazue. 1909an, Bizkaiko Foru Aldundiak lortutako dirutzagaz (hainbat ongilek lagunduta) hasi ziren eraikitzen hamar urteren buruan "Sanatorio Marítimo de Gorliz" izenagaz ezaguna izango zen erietxea. Inork gutxik badaki ere, estatuan hormigoiz egindako lehenengo eraikina izan zen Gorlizkoa. Hastapenetan tuberkulosiak jota zeuden umeak baino ez zituen hartzen, baina erietxe hau gizartearen beharrezanez egokituz joan izan da beti eta gaur egun, jakina, bestelako ardurak hartzen ditu bere gain. Leku pribilegiatu berean segitzen du Gorlizko ospitaleak, beti eguzkitan, hondartzaren parean eta paisaia ikusgarrian.

Argazkiak: **Euskal museoa, Bilbo**



ERIETXEA ERAIKI BERRIA



UMEAK JANTOKIAN



BOTIKA GELA



JAIA ERIETXEAN, GIZONEZKOAK GIMNASIA EGITEN



GUNE METEREOLOGIKOA



MOJAK UMEAK ZAITZEN



SUKALDARIA



ZENTRALITA TELEFONIKOA



GAIXOAK EGUZKITAN



ERIETXEKO BEHARGINA



ERIETXEKO BEHARGINA



JAIA ERIETXEAN, GIZONEZKOAK BOXEOAN



GARBIKETARAKO TRAMANKULLUA



EBAKUNTZA BAT EGITEN



ESTERILIZAZIO GELA



UME BAT SENDATZEN

zineeskola

Oskar Fernandez

Zinema irakaskuntzan (I)

Gure umeak eta gazteak ahalik eta hoberen hezitzeko aitzakiarekin irakasgai berri asko sartu dira irakaskuntzan. Ezagutza hauetako asko zeharlerroetako eduki berrietan kokatzen dira. Beste batzuk, berriz, halabeharrezko ikasgaietan sartu dituzte. Eduki multzo ikaragarri handi honetan arteak ere bere zirrikitua topatu du. Eta horregatik ikasleek antzerkia, dantza, marrazketa, musika... lantzen dituzte. Baina gehien kontsumitzen duten artearekin, zinemarekin alegia, zer gertatzen da? Zorte handiz Lehen Hezkuntzako ikasturteetan filmak ikusiko dituzte eta ikasgeletan didaktika giden bidez istorioak aztertuko dituzte. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta zorteak irauten badu lan hauekin jarraituko dute, eta batzuk, behar bada, hautazko ikasgaien bidez zinemaren esparrura hurbilduko dira. Baina hau nahikoa al da? Erantzuna eman baino lehenago ikus dezagun ikasleekin zer gertatzen den. Hiru urte bete baino lehen ume gehienak ikus-entzunezko sare ikustezin horrek harapatuko ditu: telebista, zinema, bideoa... Aurrerantzean, euren itzala balitz moduan hil arte inguratuko ditu sare horrek.

Derrigorrezko hezkuntzan ikasleek testu idatziak eta akaso ahozkoak ere aztertuko dituzte, baina gehien kontsumitzen dituztenak, ikus-entzunezkoak, ez. Seguru asko, bat bera ere ez dute aztertuko. Zorte handiz hizkuntza idatzia eta ahozkoa menperatuko dituzte, baina, kontuan hartu behar dugu, ezagutza gehienak, neurri handian gainera, ikus-entzunezko hizkuntzaren bidez eta ikastetxeetatik kanpo jasotzen dituztela gazteek. Bada, hizkuntza hau ez zaie irakasten. Zalantza barik ikastetxeetatik analfabeto berriak ateratzen ari dira. 4

Sprint Especial

filma

Javier Otxoaren bizitzan oinarritzen den filma estreinatu dute Valentziako telebistan

Javier Otxoa txirrindulari berangoztarraren bizitzan oinarritzen den filma edo telebista-moviearen lehenengo emanaldia eskaini berri du Valentziako telebista autonomikoak. *Sprint Especial* izenburua dauka eta Juan Carlos Claverrek zuzendu du.

Orain dela lau urte, otsailaren 15ean, Valentziako errepideetatik entrenamendusaioan zebiltzan bitartean istripua eduki zuten Ricardo eta Javier Otxoa anaia txirrindulariek. Bertan agurtu zuen anaia azkenekoz Javier Otxoak, eta orduan hasi zen bere bizitzako aldapa-gora gogorrena: istripuaren ondorioetatik berreskuratze-prozesua (ia bi hilabetez koman egon ostean). Harrezkeroztik, esaterako, Joku Parolinpiairretako domina bi eskuratu ditu, urrezkoa eta zilarrezkoa. Javier

«Laster beste telebista autonomikoetan emango ei dute filma»

Otxoaren eta bere familiaren bizitzako tarte hori kontatzen du filmak, eta oztopo guztien gainetik aurrera egiteko zein hobeitzeko grinari gorazarrea da.

Sprint Especial filma Trivision (Valentzia) eta In Vitro (Katalunia) ekoiztetxeek egin dute eta parte hartu duten aktore-



Argazkian, Javier Otxoa

etako batzuk hurrengoak dira: Beatriz Carvajal, Ismael Martinez, Juli Mira, Israel Rodriguez, Anita Clotet eta Cristina Plazas.

Laster beste telebista kate autonomikoe-tan eskainiko ei dute *Sprint Especial*, gu ETB noiz eskainiko duen zain gaude. m

Ez galdu > “Diarios de motocicleta”

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: Martxoak 16, eguaztena • Ordua: 19:30 • Zine Kluba



Film interesgarri eta bikain honen atzean Robert Redforden eskua dago. Zuzendaria, Walter Salles, zazpigarren artean sartu zen oso film ederra eta hunkigarria zuzenduz: *Estación Central de Brasil*. *Diarios de motocicleta* Ernesto Guevarak berak idatzitako egunkarian oinarritzen da. Walter Salles-ek maisutasun handiz *Che* Guevarak eta bere lagun mina zen Alberto Granadok 1952 urtean Hego Ameriketatik zehar egin zuten bidai luzea eta zabala pantailaratu du, guztion gozamenerako. Istorio erakargarri honen bidez historiako gizon paregabe honen gaztaroaren zati oso garrantzitsua ezagutzeko aukera eskaintzen zaigu, oso era atseginean gainera. Esan behar da Ernesto Che Guevararen nortasun politikoa eta ezaugarri soziologikoak abentura honetan sustraitu zirela. Amaitzeko aipatu behar dugu Gael García Bernal eta Rodrigo de la Serna aktoreek bikainki antzeztu dituztela bi pertsonaia handi horiek.

Erradiografia > UKbilkada



UKbilkada taldeko kideak euren entsegu-lekuan

Izenaren jatorria? *“Uste dut izenaren jatorria argi dagoela: taldekide guztiak Uribe Kostakoak gara eta hitz-joko bat da taldearen izena”*, azaldu du taldeko abeslari Mikelek. **Hasi ziren:** 2003ko udaberri partean sortu zen taldea. **Nongoak dira:** Guztiak Uribe Kostakoak: Algorta, Berango eta Sopelanakoak. **Taldeko kideak:** Unai “Goro” (bateria), Mikel “Piña” (ahotsa), Ander Lasa (baxua), Iker Ginea (gitarra) eta Martin Etxegarai (baxua, gaur egun espetxeratuta dagoen euskal preso). **Jorratzen duten estiloa:** Punka, eta berezi stre-

et-punk deritzon estiloa. **Gustuko dute:** Cicatriz, Rip eta Escorbuto... **Diskografia:** Oraindik ez dute ezer grabatu, baina uda aldean edo datorren urte hasieran hamar bat abestiz osatutako diskoa grabatzeko asmoa daukate. **Besteak beste, jo dute:** Gehienbat gaztetxeetan, hala nola: orain dela gutxi Udondoko (Leioa) gaztetxean. **Euskal musikaren egoera:** *“Betiko taldeak daude indarrean, betiko estiloak... eta egia da zeozter grabatzea oso zaila dela”*. **Hizkuntza:** Euskara, baina badauzkate gaztelaniazko kanta batzuk ere. m **Harremanetarako: 656 776 001**

diskoak

Love. Angel. Music...
Gwen Stefani
Universal



No Doubt taldeko abeslariaren bakarkako lehenengo disko honetan, kolaboratzaileen zerrenda txapela kentzeko modukoa da: Linda Perry (Four Non Blondes) kantak egiten, lehen mailako ekoizleak, duo bat André 3000-gaz (Outkast) eta New Order taldeko Hook eta Sumner-en ustekabeko partaidetza. Dantzan egiteko pop musika eta kutsatzen den umore onez egindako diskoa.

Living things
Matthew Sweet
Bittersweet



Estatubatuar hau azken hamar-kada biko power-pop doinuen erregeetako bat dugu, eta disko honegaz esperimentaziorako bidea egin du. Van Dyke Parks-en laguntzagaz (Brian Wilson-en ohiko kolaboratzailea), Beach Boys taldearen psicodelia koloretsua harapatzea lortu gura izan du, aspaldiko xumetasuna alde batera utziz. Baina badaude melodia benetan onak era-kusten dituzten abestiak.

Zuri so
Gontzal Mendibil
Keinu



30 urte bete dira Zeanuriko musikagile honek Zaurietatik dario izeneko lehenengo diskoa argitaratu zuenetik; oraingoan, hamaikagarrena aurkeztu du. Nabarduraz beteriko CD honetan, amodiozko eta itxaropenezko 11 abesti berri, eder, zuzen eta sakon ditugu entzungai, bihotzera zuzen-zuzen heltzen diren horietakoak. Musikari eta abeslari askok parte hartu dute, Afrika algortarra tartean.

liburua >

Loreak Zaraman



Kalean da Flores en la Basura liburuaren euskarazko itzulpena. Zarama taldeko abeslari eta gidari izandako Roberto Mosok idatzitako liburua bizipen

propioetan oinarritzen da. Ikuspegi pertsonal batetik helarazten dizkigu Mosok orduko giroa, bizipenak, ilusioak, gehiegikeriak... Malenkoniak batzuetan, gozotasunez bestetan, eta gordin behar denean gordintasun osoz. Azken finean, 80ko hamarkadako euskal rockaren inguruko giroa, argi-ilunak dira protagonistak *Loreak Zaraman* liburuan, eta zeharka edo zuzen, Zarama taldearen nondik norakoak. Euskarazko bertsioa Urdulizko Hilargi argitaletxeak merkaturatu du.

Alboka > Lau anaiak

Alboka taldeko *Lau anaiak* diskoa urteko onenetakoa da Alemaniako Folk World aldizkari elektronikoarentzat. Folk eta herri musikako aldizkariak pasadan urtean argitaratu ziren folk musikako 10 diskorik onenen artean ipini du Albokarena. Euskal kantu tradizioaletan oinarritutako lan berritzaileakaz osatu dute *Lau anaiak* Joxan Goikoetxeak eta Alan Griffinek. Hala ere, musikari askoren laguntzagaz egin dute diskoa: Fiachra Mac Gabhann, Xabi San Sebastian, Benito Lertxundi, Fon Roman, Mikel Artieda, Zohar Fresco, Juanjo Otxandorena eta Peter Maund.

www.folkworld.com



hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

dirulaguntzak

lagundu nahi baduzu
hauxe da gure kontua

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua
48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

[liburuak]

Historia entziklopedia

Euskal Herriko historia gaurkotua batzen du
Lur argitaletxeak plazaratu berri duen bildumak

Hainbat unibertsitatetako 45 irakaslek eta ikertzailek osatu dute Joseba Agirreazkuena-garen (Historia Garaikideko katedraduna, EHU) zuzendaritzapean *Historia de Euskal Herria. Historia General de los vascos* bilduma. Momentuz liburu sorta gazteleraz argitaratu du Lur argitaletxeak, baina baliteke urte amaierarako-edo euskaraz kaleratzea. EHU, NUP, Deustuko Unibertsitate eta Bordeleko Unibertsitateko irakaslek eta ikertzailek jardun dute bilduma osatzen duten 6 liburukiak eratzen. Historian zehar euskal politika, ekonomia, gizartea eta kultura jasotzeaz gainera, Euskal Herriatik kanpo (esaterako, Ameriketara) bizi izandako euskaldunen historia ere batzen du bildumak.

«Urte amaierarako-edo
euskarazko bilduma
plazaratzea espero dute»

Lehenengo 3 liburukiek Historiaurretik hasi eta Frantziako Iraultza (1789) arteko denbora tartea biltzen dute, eta azken hirurek historia garaikidearen azken 200 urteak eta gaur arteko bitartea. Esan dugun legez, Agirreazkuena-gak zuzendu du lana, baina beste lau irakaslek jardun dute koordinazio lanetan: Jose Antonio Mujikak eta Andoni Saenz de Buruagak Historiaurrearen eta herri-



Mende hasierako baserritar euskaldun bi

tarren jatorriari dagokion alorra koordinatu dute, Agustin Azkarate Erromanizaziotik Nafarroako Konkistara arteko tartea hartzen duen sailaz arduratu da (I-XVI. mendeak hain zuzen ere) eta Mikel Urkijok “*Vasconia (1876-1937): entre la tradición y la modernidad*” eremua koordinatu du.

Bildumak 580 euroko prezioa dauka eta aurrean aipatutakoaz gain, azken 300 urteotan Euskal Herriaren gainean kaleratu diren adierazpide kartografikoak ere jasotzen ditu. m

liburuak



1936ko gerra...

Iñaki Egaña
Txalaparta

Haurrek sarri galdetzen dute zergatik gertatu izan den gerra bat edo beste, eta helduei egin ohi dizkiete galderok, baina helduok askotan ez dakigu zer erantzun. Bada, liburu berri hau lagungarri izan daiteke Espainiako Gerra Zibilak Euskal Herrian eragindako sarraskia azaltzeko modu arin batean.



Kuskue tanden

Iñaki Iñurrieta
Alberdania

Bizitzari zentzua aurkitzeko ahalegina, umore gazi-gozoa eta gogoeta uztartu ditu Donostiako ikasle pisu batean kokatuta dagoen eleberri honek. Bizitzaren alderdi guztien gaineko teoriak landuko dituzte ikasle horiek: euskal arimaren ingurukoak, egunero-ko bizitzari buruzkoak...

[kirola]

Munduko onena

Sopelanako olatuetan bodyboard
ikasle izatetik **munduko maisu** izatera

Munduko Bodyboard zirkuituko edota World Qualifying Toureko txapelduna da David Perez sopeloztarra. Hurrin daude dagoeneko hamar urte pasatxo zituela Sopelanako hondartzan hartutako lehengo olatu haiek. 26 urte gaz bete du ametsa, Munduko Bodyboard txapelketa irabaztea, baina ez ditu ahaztu hasierako pausu haiek: “*amaren eskutik nindoan oraindino hondartzara, eta nire lehengo kortxoa obretako kortxo zuri horietako bat izan zen, gero amak Eroski-n erositako beste bat eduki nuen... eta apurka-apurka, txapelketetan parte hartzen hasi nintzenen arte*”. Eta olatuz olatu, “*urtero-urtero ahalik eta gehien ahaleginduz*”, txapelketan 9 urtetan zehar parte hartu ostean, iazko urte amaieran eskuratu zuen azkenean

Munduko Bodyboard txapelketa. Txapelketa hori irabazten duen lehenengo euskalduna da Perez eta bere begietatik ezagutu gura izan dugu harrobiaren egoera: “*nik uste harrobi polita daukagula, eta surfari beste kortxero (bodyboardean ibiltzen direnak) dagoela gurean*”. Hala ere, surfak beti eduki du bodyboardak baino ospe eta laguntza handiagoa, eta horren lekuko da Perez munduko txapeldun izanda ere babesle indartsu barik dagoela oraindino. “*Surfak beste laguntza edukiko bage-nu munduko txapeldun asko egomgo linateteke gurean, zalantza barik*”, aitortu digu. Sopeloztarrak bodyboard egitera animatu gura du jendea: “*harrapatzen zaituen kirola da, ez da gatxa, benetan da ederra, eta ziur gozatuko duzuela*” m

Perez, munduko txapeldun eta Peña Txuri elkarteko kide



BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
SERVITEC

Lacofris, s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITU

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA



T: 430

Sarrikobaso 15

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Igor Elordui > AEK-ko komunikazio arduraduna

“Euskera salbatutzat emon gura dauen ideia baikor hori saihestu gura dogu”



Korrika dela-eta lanez gainezka dabil orain Igor Elordui

Igor Elordui 1992an sartu zen AEKn, irakasle soil modura. Apurka, 32 urteko erromotar honek erantzukizun potoloagoak hartzen joan zen, eta gaur egun kooordinakundeko komunikazio arduraduna da. Elorduik hainbat konturen gainean egin digu berba, baina batez ere momentu honetan AEKren indar gehienak eskatzen dituen hamalagarren Korrikaren prestakuntzaz.

—Noiz hasten zarete Korrika prestatzen?
—Korrika akaba eta hurrengo egunean. Urte bi behar direz, kontu asko dago-eta lotuteko. Hasteko, pentsa behar da zein mezu plazaratu gura dogun. Ibilbidea be pentsa behar da... Baina egia da euskaltegietan Korrika gehiago sufriduten dala —sufriduten dalako- Korrika dan ikasturtean eta urtarrietik aurrera.
—Korrika hasi zenetik hona, aldatu egin da bere helburua?
—Arima ez da aldatu. Gero, mezuaren bi-

tartez Korrika bakotxak badauka bere helburua, baina arima Euskal Herri euskalduna aldarrikatzea izan da beti.
—Aurten euskaldunberriak dira mezu horren ardatza. Euskara ikastearen abantailak, zelanbait esateko, zabaltzen diharduzue. Izan ere, helduen euskalduntzea motel dabil...
—Horregaitik pentsaten dogu inportantea dala aurtengo Korrikaren mezua. Euskera salbatutzat emoten dauen ideia baikor hori saihestu gura dogulako. Emoten dau umeak

eskolan euskaldunduta dana eginda dagoela. “Yo no, mis hijos sí” horren kontra egin gura dogu. Euskara ez dago salbatuta. Salbatze bidean egon ahal da, baina hori danon konpromisoagaz lortuko da. Horregaitik gogorutzen dogu euskaldundu beharra.
—Garai batean helduen euskalduntzea militantzia kontua zen batez ere: “Euskara ikasi behar da, salbatzeko”. Orain, aditzera ematen da euskara ikastea erakargarria eta jostagarria dela, eta abantailak dakartzala...
—Bai, baina ez da dikotomia bat. Euskerak biziraun badau, euskaldunak dagozalako da.

«Pentsaten dot geu izan ginela 18/98 sumariorako proba eremua, zelanbait»

Orduan, lehenengo eta behin euskeraz ez dakienak ikasi egin behar dau. Hori ikuspegi militante bat izan ahal da, baina guk esan gura doguna da euskera ikastea, gainera, plazer bat dela, mundua ikusteko ikuspegi barria, euskal kultura ezagutzeko modua. Ez da gauza bat bestearen ordeztu, batari bestea gehitutea baizik.
—Azken urtetan, azalpen asko ematera behartuta egon zarete, makillakadak leku guztietatik etorri zaizkizue eta...
—Gure gainean, eta euskalgintzako edozein erakunde edo komunikabideren gainean, beti egoten da Damoklesen ezpata hori. Pentsaten dot, gainera, geu izan ginela, zelanbait, 18/98 sumariorako proba eremua, orain dala urtetxu batzuk. Baina esan behar dogu denporak arrazoia emon deuskula; geugaz egiten ahalegindu zirana bere horretan geratu zan. Baina gerorako irudi hori geratu da, eta gizartearen eta komunikabideen aurrean erantzunak emon behar izaten doguz beti. Baretzen joan da, baina salaketak larriak izan dira gure kontra. m

Esakere > “Hage deko etxe horrek”

Irudia: Gorka Vazquez

Urtek pasa ta pasa egiten direz baia gauza batzuk sendotasune dauke urtekaz segiduteko, bai eta euren ingirukori sendotasune eta izakere emoteko. Holantxe da gure baserri zaharraz, hage edo habe sendo dekon baserrik yausi barik pasaten dauz urtek eta urtek, eta halan esaten da famili batzun ganera, euren ezaugarrik, onak zein hain onak ez ixen, belaunaldi batetik bestera bardin segiduten dauden.

Esakera hau R.M. Azkuek baturiko da, eta beran “Euskalerraren Yakintza” behar handin topako dozue.

Gure**berbakere**54

ZELAN ESAN

Nonori zeozer egiteko zelan eskatu/agindu

Testua: **Xabi Bilbao**

Zeozer egiteko eskatuten

—Bíztuko zu (bíztuko dozu) argi?
—Bíztuko zaunke argi, mesedez?
—Eskértukotzut (eskertuko dotzut) argi bíztuten bádozu.

Erantzunek

—Bai, zélan ez.
—Bai, ointxe bíztukot.
—Bai, mesede barik.

—Eztáit ahalko bádot (ahalko dóten).
—Ointxe ezin dot.
—Gúrau (gurago) dot hálán itxi.

Zeozer egiteko aginduten

—Bíztuzu (bíztu egizu) argi ointxe!
—Bestala argi bíztuten bádozu!
—Bíztuko ete dozu argi ba!

Erantzunek

—Lasai gizona/andrea, ointxe bíztukot (bíztuko dot)!

—Argi? Oin ezin dot!
—Argi bíztu? Pentsa bérez!
—Bíztúzu zeuk!

Beste aditz batzukez

ekarri > ekázu ardáu, ekázuz pátata bátzuk
éron > éroizu diru apur bet, éroizuez umek kánpora
ikutu > ikutúzu hemen, ikutúzuez hónek tómatek
ibilli > ibíl zatez lasai, ibilli zateze kóntuz
yon > yon zatez lehenbaxe lehen, yon zateze etxera

Adibidek

—Aze yaie! Dának serio-serio bérbatan!
Yóizue músike apur bet, ía anímaten gáran dánok!
—Bienke! Ointxe ímingoduz ságuk yántzan!
—Ño, honek ronak inderra deko ba!
Bótakotzezu kokakóla apur bet?
—Kokakóle bóta? **Pentza bérez!**
Berangon rona hutse édaten da!
—Rona edan bai, baia oin ezara kapaz érrek eta élek ondo éstateko. **Bestala lo íten bázoaz!**
—Mai...! *Maia ezdait* etxeraño heldu áhalgo **mánaz...**

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde

ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / villabotas-ekoa



itsaso arana / jolastoki-koa

Marisko

Hasteko lapiko batean berakatz aleak oliba oliotan ipini. Apur bat urreztatzen direnean barazkiak julia-
nan zatiturik gehitu. Hau da, tipula, azenarioa eta
porrua. Su ahulean eduki barazkiak bigundu arte, gero
tomatea -zurituta-, eta ganbak gehitu. (Hemen esan behar
dut krema hau edozein mariskorekin ere egin daitekeela,
soberan ditugun langostino buruak direla, ezkarra, neko-
rak...) Flanbeatu koñakarekin, eta arrain salda edo ur apur
bat gehitu. Eduki hau guztia sutan 20 minutuz eta gero tur-
mixetik eta txinotik pasatu. Platera ganba zurituekin eta
perrexilarekin atondu daiteke. On egin! m

osagaiak (lau lagunentzat)

kilo erdi ganba • hiru tipula • hiru porru • hiru azenario • tomate bat
berakatz • basobete koñak • arrain salda



10 aholku

- 1 Priorat, Toro, Somontano eta Ribera de Duero
baltzak eskatu. Rias Baixas, Rueda zuriak eskatu
eta Chardonnays-ak kupelean fermentatuak.
- 2 Kaba hartu aperitiboan.
- 3 Etxean ate gardeneko ardao armairu klimatizatua eduki.
- 4 Eskatu ardao zuzenean bodegan.
- 5 Edozein ardao taberna berezietara joan, ardao
kopaka dastatzeko.
- 6 Jakin baltz galiziar interesgarrienak Ribera
Sacra-koak direla.
- 7 Postrean Pedro Ximenez bat eskatu.
- 8 Rueda edo Rias Baixas bat eskatu, baina ez dadila
izan azkeneko uztakoa (2 edo 3 urte, gehiago ez).
- 9 Brandy ardao baltzak edaten diren tenperaturan
(18º) eskatu, kopa txikian.
- 1 Gaiaren inguruko dauden agerkariak ezagutu.

Marina surf

Sopelanako hondartzan porturatu zen pirata-ontzia



Argazkian, Jose Luis Ferreiro

“...Allí donde el mar te saluda” leloa
ipini zion Jose Luis Ferreiro ourensetarrak
Marina Surf jatetxe eta tabernari; izan ere,
Sopelanako hondartzan dago, eta itsasoko
olatuak ia bertaraino heltzen dira, bezero-
ak agurtzeko edo. Datorren apirilaren 4an
zilarrezko ezteiak ospatuko ditu. Oso
txundigarria da dekorazioa: piraten itsa-
sontzien moduan dago atonduta, xeheta-
sun guztiakaz. Ferreirok berak diseinatu
zuen, baita gauzatu ere: “Ikusten duzun
den-dena, zorua izan ezik, esku hauexek
egin dute. Bederatzi hilabete eman genituen
lagun batek eta biok taberna eraikitzen”,
esan zigun Sopelanan 25 urte daroazen
biologo honek.

Urteko egun guztietan aurki dezakegu
zabalik Marina Surf: neguan eguerdiko

13:30etik gaueko 1:30era; udan, oster, a,
goizeko 10:00etatik gaueko 2:00ak arte.
Neguan batez ere taberna legez dabil,
“baina enkarguzko bazkariak eta afariak
ere egiten ditugu”. Alabaina, udan jatetxea-
ren eskaintza ugariagoa da: plater konbi-
natuak (9-10 euroan) eta karta fina, “ondo
eginda eta elikagai onakaz”. Hiru motatako
okela daukan platera eta erreboiloa txipi-
roizko orkideagaz gomendatu zizkigun
Ferreirok: “Egile-sukaldaritz, da, nik
asmatutakoak eta prestatutako platerak”. Ai-
patutakoaz gain, sotoko 12.500 botila
ardao, munduko musika guztia eta, jaki-
na, bista ederrak eskaintzen dizkigu leho-
rreko pirata-ontzi honek. m

M/S Larrabasterrako hondartza, z/g
T. 94 676 06 15



VIEJO

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

amesti
obrak.proiektuak

Berrikuntzak
Eraikuntzak

Etxebizitzak
Lokalak
Bulegoak

Basagoiti etorb. 56
48.991 Algorta
Tel. 944 915 298
Fax 944 915 299
amesti@ameslur.com

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia oro-
korra
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 94 430 76 96



san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

eleizalde
taberna
eguneko menua

Kresaltxu 13
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO

Zirikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

Zure publizitatea hemen
zuek publikatu dezakezue
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11
AREETA
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5
ALGORTA
T. : 94 491 13 94



**VILLABOTAS
JATETXEA**

Menu merke eta askotarikoak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]



URA
t

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Azken aldian amonakeriak bakarrik kontatzen dituzu, aspaldiko istorioak bakarrik darabilzkizu ahoan, eta ingurukoak nahikotxo aspertu dituzu honezkero. Egunkaria irakurtzeak ez dizu txarrik ekarriko, eta bide batez gaur egungo kontuen berri jasoko duzu.



AITZURRA
t

(Martxoak 21 apirilak 19)
Beri basoa eskuan! Urez beteta balego sikieran. Seguruenik ez dakizu eta mostoak daukan zaporea ere! Barne-garbiketa behar duela diotsu behin eta berriz zure gorputzak, zuk kasurik ez.



GARIA
t

(Ekainak 19 uztailak 18)
Hori da hori kolonia kiratsa! Lurrin botila hutsik utziko zenuen. Nesketan/mutiletan egitea zure asmoa bada zure irribarre eder hori erabiltzea besterik ez daukazu. Usain horregaz bestea limurtu barik, zorabiatuko duzu.



META
t

(Irailak 17 urriak 16)
Gurasoen etxea uzteko asmoa darabilzu buruan. Baina etxebizitza erostea hain da gatxa. Oraingoz ez daukazu presarik, beraz lasai hartu. Goiz ala berandu, aukera itzela aurkituko duzu, baina momentuz itxaron beharko duzu.



OTSOA
t

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Lagunek mesede asko egin dizkizute azken asteotan, eta orain "odolkiak ordainetan". Hala ere, baten barek dirua eskatuko dizu eta hobe duzu hala edo nola ezetz esatea, ziurrenik laster zeuk beharko duzu-eta.



HOSTOA
t

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Hark ohartarazi zizun oker zenbiltzala, hala ere zuk egin egin zenuen. Orain konturatu zara egia dela, txarto egin zenuela. "Jausten ikasten da ibiltzean". Orain, gatxa egiten bazaizu ere arrazoia zeukala onartu beharko diozu.



LASTOA
t

(Uztailak 19 abuztuak 17)
"Goazen ba!" Hori da azkenaldian diozun bakarra, edozertarako prest zaude. Bitamina mirarigarriak hartzen ete dituzun pentsatzen dabilza lagunak. Ez ezazu erritmo hori galdu, erretirodun zarenean hartuko duzu-eta atsedena.



HAZIA
t

(Urriak 17 azaroak 15)
Sarri askotan pentsatu barik esaten dituzu gauzak eta krudelegia zara. Gainera, ez zara ahalegintzen txarto esandakoak zuzentzen eta lagunak apur bat nazkatuta daude horregaz. "Jardun goxoak adiskideak egin eta etsaiak ezitzen ditu".



ADARRA
t

(Otsailak 19 martxoak 20)
Bat, bi, hiru, lau... bost, sei, zazpi... Ze pozik zabiltzan azken aldian! Beste urte bat betetzeak on egin dizula dirudi. Ingurukoak ere pozik zu barreka ikustegatik. Zu hain zoriontsu ikusten ez daude ohituta-eta.



EGUZKIA
t

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Sorginafariak txarto egin zizulako aitzakia eman diozu amari. Goizean goiz eta parranda egin ostean jandako pintxo hura ez zegoela egoera onean? Bada, mokadu batean jan zenuen! Zer uste duzu amak sinetsi dizula ala?



IRATZEA
t

(Abuztuak 18 irailak 16)
Katarroa badaukazu hau hartu, buruko minarentzako beste hau, triperako minarentzat beste hori... Ene bada! Botikaria ematen duzu! Inork ez al dizu esan automedikatzea txarra dala? Kontu handiz ibili behar duzu sendagaiakaz.



NEGUA
t

(Azaroak 16 abenduak 20)
Aspaldiko lagun bategaz egingo duzu topo kalean. Denbora luzea pasa da azkenengoz elkar ikusi zenutenetik, eta asko aldatu dela antzemango diozu. Gonbida ezazu kafetxo edo garagardo bat hartzera, asko daukazue-eta elkarri kontatzeko.



mungia

oKINdegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz,
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

[komikia]



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamaika beltzune ditu

Ezker eskuin

1. Auzokoa, aldamenekoa. 2. Olariak. 3. Lapurdiko herria. Burdinbidea. 4. Hiri barruko errepideko tren. Ogi, hitz elkarketan. 5. Eite, itxura. Azkenekoa eta lehenengoa. Sufrea. 6. Ipar, zirikatua. 7. Oxigenoa. Metal estimatua. 8. Urrea. Zaldiak mugiarazteko interjekzioa. Bostehun. 9. Ebazpen. Gizon izena. 10. Intsektu nazkagarria. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1.Esku. Ukatzeko. 2. Gaueko argi. Batrazio ezaguna. 3. Zaraitzuko. 4. Nafarroako Bortziritako herria. Iridioa. 5. Berrogeita hamaika. Bigira, gaualdi. Iodoa. 6. Igarle. Mapa. 7. Laudorio, gorespen. 8. Momentu, lipar. Musika-partituren euskarria. 9. Ipotx, ñaño. Arabako alderdi politikoa. Musika nota. 10. Hutsa, desegokitasuna. Joaki da.

Soluzioak									
V	A	I	A	V	I	R	H	O	Z
O	W	L	E	T	I	A	I	P	A
D	I	R	I	A	U	A			
V	R	R	V	L	I	Z	O		
A	U	T	V	K	I	Z	I	K	
S		A	Z	E	T	E	G	I	E
T	O		V	B	I	N	V	R	
V	N	E	R	T	V	A	R	S	A
K	N	O	Z	I	G	V	L	O	A
N	U	G	V	L	I	Z	I	B	A

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Irlandako semea da
- Politikan badu eskarmenturik
- Laster Donostian abestuko du

> Aurrekoaren erantzuna: Ernesto Valverde
> Irabazlea: **Goizalde Eguen (Gorliz) ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

•Argia astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



•Freexkue liburua

www.argia.com



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



Bittor Egurrola

Erromoko eskola, 1957

Ordura arte La Campa eskoletan ibilitako haurrak 1957-58 ikasturtean gaur egun Erromoko Kultur Etxea dagoen eraikinera aldatu zituzten, bertan eskolak hartzeko. Argazkia kanpoan, handik hurbil, egina dago eta bertan Erromoko ikasle gazteak Don Aureo “Mister Latigo” maisuarekin batera azaltzen dira. Irakaslearen izengoitiak garbi adierazten du zer-nolakoa zen bere eskuzabaltasuna umeeekin; “opari ederrak” egiteko ohitura handia ei zuen. Valladolidetik gura etorria zen gaur egun Plentzian bizi den Don Aureo. Argazkia hartua dagoen garaian, eta eskola gehienetan bezala, mutiko haiei esne hautsa, gazta horixka amerikarra eta gurin gazia ematen zitzaizkien eskolan AEBek ematen zuen laguntzari esker. Erromoko eskolak leku berean segitu zuen 1972an Pedro Aristegi Ikastetxea martxan jarri zuten arte. m

Lehehengo lerroan: Ricardo Ruiloba, Jose Angel Aketxe, Francisco Franconeti, Jose Luis Rios “Peloti”, Enrique Portugal, Luis Mari Escudero “Txidu”, Josetxu Casanueva “Manako”, Jose Antonio Asensio “Piru”, Aureo Moyano, Jose Angel Sanchez “Perikles”, Javier Trigueros.

Bigarren lerroan: Alfredo Valdemoro, Angel Juez “Txamako”, Jose Mari Lopategi, Luis Ugarte, Angel Segura, Angel Martinez “Tinez”, Eduardo ?, Jose Miguel Segurola “Txemi” (GB), Javier Ibañez, Juan Mari Barcena, Pedro Mari Otxoantesana “Peli”, Jose Mari Zuazo “Culos” (GB), Juan Jose Fernandez “Txanjo”, Juan Mari Velasco, Juan Mari Azkue “Batusi”.

Hirugarren lerroan: Jose Mari Lekerika, Luis Angel Axpe “Enredabales”, Txema Otxoantesana, Txomin Larzabal, Juantxu Mendieta, Antonio Pozo.

Laugarren lerroan: Juan Mari Azkorra, Julian Arteagabeitia, Jose Mari Cebolla, Mario Luque, Joseba Zuazo “Txikitxu”, Jose Ricardo Saez Rafa Martinez, Jon Juaristi, Magencio ?, Joseba Juaristi.

MIRENTXU PURROY > kazetaria

“Nafarroako gobernuak euskaldunak gorrotatzen ditu”

Testua: Jon Urresti



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Definizioak berez dira murriztuak.

Zein liburu gustatuko litzazuke idaztea?

Idazten nabil, baina ez dizut gaia aurreratuko.

Eta zein pertsonaia antzeztuko zenuke film batean?

Ikusezinarena, hau da, ikusten duena baina ikusia ez dena.

Historiako zein pertsona miresten duzu gehien?

Maitatu ahizpa, gehien miresten ditudan balioak edukitzeagatik: sendotasuna, adimena, buru-argitasuna...

Zure jakirik gogokoena. Legatz-kokotea.

Aitortu dezakezun bizio bat. Kristalezko tailuak eta miniaturak.

Oporretara joateko lekurik aproposena. Tobago uhartea belaontzi batean.

Zein hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Ez dut “sekula” berba jasaten, gaixotu egiten nau. Bizitzaren kontra doala eta irreal dela iruditzen zait.

Zer janzten duzu lo egiteko? Kotoizko arropa.

Ezin zaitezke bizi... Argi barik.

Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.

Lumiere anaien garaiko 16 milimetrozko zine-kamera errusiarra, Kanarietako azoka batean, baina lapurtu zidaten.

Zein berri gustatuko litzazuke entzutea albistegi batean?

Azkenean, Euskal Herria askea dela.

Zertan gustatuko litzazuke haragitzea?

Ez litzaidake ezertan ezta inorengan ere haragitzea gustatuko; ustekabeak gustatzen zaizkit.

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa? Nekez gogoratzen ditut.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?

Orain dela zenbait segundu. Tira, sarri.

Zure azken erokeria.

Nafarroan, non bere Gobernuak euskaldunak gorrotatzen dituen, bizitzen jarraitzea. m

LABURREAN— Odolean darama kazetaritza. Bere bizitzan oso zati garrantzitsua ei da: *"Nire bizitza erdia edo erdia baino gehiago da nire lanbidea, maite dudako"*. Betidanik gustatu izan zaio idaztea eta transmititzea, eta kazetari izatea zortea dela dio: *"Begiak irekitzera eta belarriak luzatzera behartzen zaitu, zure inguruan gertatzen denaz jabetzera. Nire zortea gura izan dudana naizela da"*. Kazetaritza ikasketak ez ezik, Mirentxu Purroyk (Iruñea, "ez dizut urtea esango, misterioaren zati delako; hemen 200 urte daramatzan haragitze bat naiz") Filosofia, Psikologia eta New Yorken Zinema ikasketak ere eginak ditu; denetarik ere idatzi izan du: ipuinak, saia-kerak, gidoiak, artikulak... *Punto y Hora de Euskalerria* aldizkariko eta *Egin* egunkariko zuzendari izan zen garai batean, eta gaur egun *mundo.hoy* erreportaje-saioaz arduratzen da ETB 2 katean: *"Kalitatezko telebistaren aldeko apustua da, ia bakarrik egiten dudana"*. Miramongo bere bulegoko ateak zabal-zabalik dauzka edozein lankiderentzat, eta bere egoeraz arduratzen da; urrun joan barik, itaunketa honen ostean, kazetari honi bere beharragaz ea gustura dabilen galdetu zion. Kasta handiko kazetaria Mirentxu.

ekt
euskarazko
komunikazio
taldea s.a.

KAPITAL HANDITZEA

I. kapital handitzean
4.595.900 €
lortu genituen
Ezarritako helburuaren **% 92**

EUSKARAZKO KOMUNIKABIDE BERRIAK
SORTU ETA SUSTATZEKO



HITZAK ESKUALDEETAN



berria.info



MATRAKA



matraka.info



berria.info/english



urolakostakohitza.info
oarsoaldekohitza.info
tolosaldekohitza.info

400.000 € behar ditugu

INFORMAZIOA:

943 30 43 45

www.ektsa.net

akziodunak@ektsa.net